

San Migel jaiak Oñatin asteburuan

Azoka handia egingo
dute bihar goizean | 21



Eguazteneko danborrada. | M.B.

Gazteak erakartzea, Arrasateko
Emakume Txokoaren erronka | 2



Organo zikloko lehenengo
kontzertua gaur Bergaran | 19



Maritxutako Nobenaixuen, enbutua
jasoko dute gaur lau herritarrek | 11



AHANZTURAN ERORIKO EZ DIREN ISTORIOAK

Eneko Barberena eta Mikel Ocea arrasatearrek *Martin Larraalde* izeneko liburu eta diskoa kaleratu dute. Ahanzturan erortzea nahi ez duten hamaika istorio batu dituzte. Barberenak hitzak jarri dizkie istorioei eta Ocejak ilustratu egin ditu; musika, berriz, Gose, Petti, Pirritx eta Porrotx, Ain 1 eta beste hainbat kolaboratzaile ezagunek jarri diete. | 31

Eneko Barberena eta Mikel Ocea, Monterron parkean, lanaren azala erakusten. | JOKIN BEREZIARTUA

Mondragonek 2016ra arteko enpresa politika onartu du

Enpresa sarea aldatu
egin nahi dute, balio
erantsiko enplegua
sortzeko | 4



Kongresua egin dute asteon. | M.B.

Antzuolako armarri-sinboloa aldatzeko ideia onenari saria | 25

"Sukaldarien lanbidearekiko pasioa ikasleei transmititzea da helburua"



Joxe Mari Aizega | Basque
Culinary Centerko zuzendaria | 8

Ospitale berrian murrizketak egin direla salatu du EAJk | 5

36ko gudariak Burdin Aroko harresia erabili zuten babesteko, Aramaion

Murugaineko indusketen emaitzetako bat da hori; gehiago dago | 4

SINADURAK



Mundua 2050. urtean | 6
JON ETXEBERRIA



Beste hamabost egun | 6
LARRAITZ ZUBERIO



Iristen ez zaizkizunak | 12
NEREA MAKAZAGA



Gastronomia unibertsitatean | 23
GORKA ETXABE



Nondik dator susmoa? | 26
ANDERE ARRIOLABENGOA



Zazpiak batera | 40
XABIER ZUBIZARRETA

Emakume Txokoa martxan, gazteak erakartzeko erronkarekin



Amets Beltran de Gebara, Emakume Txokoa. | LEIRE KORTABARRIA

- ▶ Abendura arteko egitaraua bete-beteta dator
- ▶ "Gazteei begirako eskaintza ere badugu", diote

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoa bada erreferentea arrasatear eta debagoiendar askorendako: emakumeon topaleku, berdintasunaren inguruko aisialdi edo hezkuntza eskaintza osatzeko edo ikuspuntu kritikoa garatzeko. Ikasturte berrirako, bada, honako helburua dute: Emakume Txokoa gazteei ere zabaltzea. "Hori da gure erronka, eta emakume gazteei begirako eskaintza ere badugu", esan dio Emakume Txokoko dinamizatzaile Amets Beltran de Gebarak Aitziber Aranburuzabala kazetariari. Hemendik eta abendura arteko eskaintza hori aurkeztu dute, eta ikastaro eta tailerretan izena ematen hasi da jendea: "Telefonoa jo eta jo dabil egunotan, eta ikastaro batzuk dagoeneko bete dira", esaten digu.

Beltran de Gebara bera ere aurpegi berria da ikasturtean,

ESANAK

"Kafe-tertulia izango da, Arrasateko feminismoaren gainean"

"Jende asko mahaiaren bueltan elkartu gura genuke"

AMETS BELTRAN DE GEBARA
DINAMIZATZAILEA

eta "hasi berri eta oso gustura" dabilela esan dio Aranburuzabalarari Arrasate Irratian. Berak egingo die harrera aurrerantzean Emakume Txokora joaten diren guztiei, astelehenetik eguenera 11:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara, eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara.

Antolatutako ekintza bat bereziki nabarmendu gura du dinamizatzaileak: urriaren 21ean egingo duten Jabetze Eskolako kafe-tertulia: Feminismoaren erronkak Arrasaten. "Helburua da emakumeak mahaiaren bueltan jartzea eta feminismoaren ibilbidea errepasatzea, ze erronka eta aldarrikapen dituen momentu honetan, zein den gure esperientzia... Aprobetxatu dezakegu Arrasateko agenda feminista ere osatzeko: lehenetsunak, gaiak, aldarrikapen berriak eta zaharrak... Ilusio handia egiten digu ekimenak, eta gustatuko litzai-

guke herriko jende dezente elkartzea", azaltzen du Beltran de Gebarak. "Eta bereziki, jende gaztea erakarri nahi dugu", azpimarratzen du.

Joaten diren guztiek, gazte, heldu zein adineko, mokadutxoia eta ardo goxoa izango dituzte, Emakume Txokoak eskainita.

Helburu bat, bi adar

Urtero moduan, aurtengo ere eskaintza bikoitza dago Emakume Txokotik bideratuta: bate-tik, eskaintza orokorra, eta bestetik, hiru urte badaroztan

Jabetze Eskola. Hauxe esaten digu Amets Beltran de Gebarak: "Helburua beti berbera da: berdintasuneko gizartearen alde egitea. Horren barruan, Jabetze Eskolak, ikastaroen bitartez, emakumeok hainbat esparrutan bizi dugun egoerari modu kritiko baten erreparatzen lagundu gura du; norbere garapenean arreta jarrita, lan pertsonala eta taldekoa eginez. Horregatik, tresna zehatzagoa da berdintasunera begira. Jabetze Eskolak sakondu egiten du gure helburu orokorrean".

PREZIO PAREGABEAK

eta %4ko BEZ abenduaren 31 arte

AUKERA APROBETXATU !!

943 10 95 95

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

ESKORIATZA - Elorreta Auzoa (Erdigunetik oso gertu)



Urtero zenbait jardunaldi antolatzen ditu Jabetze Eskolak. Aurten, gai hauek aukeratu dituzte: Irakurketa kritiko-feminista, Emakumeen urratsak literaturan, Emakume identitatea eta jabetza, Emakumeak kameraren atzean, Nire gorputzaren bila izeneko tailerra eta urriaren 21eko kafe-tertulia.

Autoen mekanika, ikasgai

Bide berberak jarraitu behar dira Emakume Txokoak antolatu duen beste edozein ekintzan izena emateko. Eta oraingo hiruhileko egitarauak baditu aukera erakargarriak. Beltran de Gebarak hauek nabarmentzen ditu: "Autoen oinarritzko mekanika eta mantentze lanen ikastaroa dago; betidanik gizonezkoen kontu gisa hartu da, eta interesgarria iruditzen zaigu ikastaro hori antolatzea, emakumeok ere gai garelako. Bestetik, margogintza ikastaro-laborategia emango dugu; eta modu eragingarrian komunikatzeko tailerra ere, Pepa Bojo irakasleak emanda, Emakume Txokoan oso ezaguna". Horiez gain, argazkilaritza hastapen tailerra, sormen eta Afrikako dantzena, gorputz-mugimendu kontzientziazatzea, pilatesa eta sendabelarren eta osasunaren gainekoa daude aukeran.

Horiek, ikastaroak; tailerrak honakoak dira: *Monterie ondo ipintzen ikasi nahi?*, *Dantza libre* eta *Taller intensivo de creación: del cuerpo y la pintura a la fotografía y el vídeo*.



Irakurtzen. | TORSTEN MANGNER

Sendotuz joan den Eskola

Aurtengo Jabetze Eskolaren egitarauak honako jardunaldiak dauzka: irakurketa feminista kritikoak, emakumeak euskal literaturan, emakume-identitatea... beste behin, arduradunak eskaintza erakargarria egiten ahalagindu dira.

Orain dela hiru urte egin zuen apustu Emakume Txokoak Jabetze Eskolaren alde, eta, pixkana-pixkana, sendotuz joan da: "Hasierak ez dira beti norberak gura adina onak izaten, baina osatu dira taldeak eta badoa aurrera Jabetze Eskola", dio Amets Beltran de Gebarak. Sare-proiektu baten sortu zen, eta Gipuzkoako beste hiru herritan bakarrik ematen da.

Ikastaroetan eta tailerretan parte hartzeko baldintza bakarra da emakumea izatea. Arrasatearrek zein kanpokoek parte har dezakete, honako prezioak ordainduta: 35 euro Arrasaten erroldatutakoek; 25, langabeek; eta 42, Arrasaten erroldatuta ez daudenean.

Emakumeon topagunea

Ikastaro eta tailerrez gain, honako ekintzak antolatu ditu Emakume Txokoak urrirako eta azarorako: Montehermosora kultura irteera eta feminismoaren gaineko erakusketen bisita gidatua (urriak 15), *Emakumeak eszenan* antzerki zikloan, *Ogiyik ekarri etzun semia* antzezlan (urriak 19), *Mujeres frontera* kontzertua eta argazki emanaldia (azaroak 5), Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguneko ekintzak (azaroak 25) eta *Emakumeak protagonista*: Uxue Alberdik Maialen Lujanbio elkarbiziriketatuko du (azaroak 30).

Edozein ekintzatan zein Jabetze Eskolan izena emateko, Emakume Txokora joan behar da (Uarkape frontoi atzean, Altamirarako bidetik), 943 79 41 39 telefonora deitu edo www.arrasate-mondragon.net webgunea bisitatu. Doako umezaintza zerbitzua dago beharra dutenendako.

Emakume Txokoak ohiko espazioak eta zerbitzuak ematen jarraitzen du: doako aholkularitza juridikoa zein ekintzak egiteko gelak eta, Beltran de Gebararen hitzetan, "adin eta jatorri guztietako emakumeek elkar topatzeko gunea".

ZEIN ONDO!

Etxebizitza berria gure familiarentzat egokitua, guk nahi dugun moduan!

Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza. Zure eskura dago.

2 logela **198.000€**

3 logela **240.000€**

* Gehi BEZ. Abenduaren 31rarte aprobetxatu %4 ko BEZa.



UTE URIBARRIren bermearekin

ARRASATE

LKS

Informazioa eta salmenta
943 71 22 59

Etor Telleria: "Murugainen Burdin Aroko harresia dago, oso argi ikusi dugu"

Uztaileko indusketek Burdin Aroko eta Espainiako gerrari buruzko aurreikuspenak berretsi dituzte

MIRIAN BITERI | ARAMAIO

Oso pozik daude Ondare Babesekoak uda partean Murugainen egindako indusketen emaitzekin. Lan horietan parte hartu zuen Etor Telleria arkeologoak aipatu du Burdin Aroko eta Espainiako gerrako ikerketa lerroen gaineko aurreikuspenak bete egin direla. Horren harira, azaldu du indusketei esker Burdin Aroko harresia bistaratu egin dela, eta hainbat zatitan, gainera, "ondo" kontserbatuta dagoela egiaztatu ere. Honakoa esan du: "Harresia egon badago, eta leku batean oso argi ikusten da".

Horretaz gainera, Burdin Aroko aroarekin jarraituz, "barruko" bizileku baten aztarnak topatzen saiatu dira. Ondare Babeseko arkeologoaren esanetan, aurkituntzak ez dira "hain garbiak" izan. Zeramika puska eta esku-zoko errota zatia agertu dira, eta horrek erakutsi du bizileku bat zegoela han, baina ezin izan dute lotu bizileku "zehatz" batekin.

60 janari poto

Espainiako Gerrarekin lotutako aurkikuntzekin ere harrituta geratu dira. Horren harira, honakoa esan du: "Lubakia Burdin Aroko harresiaren atzetik eginga zegoen; aprobetxatu zuten aurretik eginda zegoen egitura defentsiboa. Dragones batailoiko gudariak eta sozialista gazteak izan ziren han". Horretaz gainera, munizioa eta hustuta dauden 60 janari poto agertu dira. Telleriaren esanetan, horrek agerian utzi du gotorleku edo sukalde modukoa zegoela han.



Murugainen indusketak egiten. | GOIENA

ESANAK
"Burdin Aroko harresia erabili zuten gerrako lubakia egiteko"

ETOR TELLERIA | ARKEOLOGOA

Horren guztiorren berri emateko eta proiektuaren balorazioa egiteko hitzaldia egiteko zen atzo ilunkeran Telleria, Aramaioko Sastiñan. Horren ondotik, Espainiako gerrak gure inguruan izandako eraginaren gainean jardute-

ko asmoa zuten, mahaiaren bueltan, lau lagunek: Juan Ramon Garaik, Julian Untzuetak, Fermin Etxeberriak eta Julio Axpek.

Auzolana bihar

Bihar, oster, Murugaineko indusketa-gunea bertatik bertara eza-gutzeko irteera egingo dute. Auzolanean egin nahi dituzte egokitzapen lanak lubakietan. Herritarrek gonbidatu dituzte. 09:00etan, pilotalekuan daude geratuta, eta erdi erdi beranduago, auzolanarekin hasiko dira Murugainen. Eguerdian, hamarretakoa egiteko ordu-beteko geldiunea egingo dute; eta jarraian, lanean jarraituko dute auzolandegian parte hartzen dutenak.



Arrasateko Amaian egin zuten kongresua, eguaztenean. | MIRIAN BITERI

2013-2016rako politika onartu du Mondragonek

Korporazioak aurtengo kongresua egin du eguaztenean Arrasateko Amaia antzokian

M.B. | ARRASATE

Eguaztenean Mondragon Taldeak Arrasateko Amaia antzokian egindako urteroko kongresuan, aho batez onartu zuen etorkizunean "garrantzi handia" izango duen *2013-2016 Politika Sozioenpresariala* izeneko dokumentua. Korporazioaren erronkak eta oinarritzko enpresa jardueraren ildoak zehazten ditu horrek.

Hain justu, kooperatiben plan estrategiak lantzeko abiapuntua ezartzen duen txostena da. Mondragonek bere enpresa sarea eraldatu nahi du, balio erantsiko enplegua sortzeko; eta esandako erronka dokumentu horren barruan dago.

Helburua lortzeko oinarritzko bost jarduera ildo zehaztu dira: Dimentsionamendua eta Nazioartekotzea, merkatu globalean dimentsio egokia eta lehiakor bilatzeko; Berrikuntza, sustapenarekin eta ezagutzarekin batera, negozio ereduak etengabe berritu ahal izateko eta etorkizuneko sektoreetan jarduerak bultzatzeko; Elkarren Arteko Lankidetz, kooperatiben arteko aliatuekin, merka-

tuaren aukera optimizatzeko eta irtenbide integralak eta balio erantsi handiko prestazioak eskaintzeko; eta Konpromisoa eta Nortasun Kooperatiboa, taldearen balio, printzipio eta kudeaketa ereduarekin bat etorriko diren jarrera eta portaeretan adierazita.

Aldaketarako egokitzapenak

Erronka horrek eskatzen duen egokitzapena da dokumentuak jasotzen duen bosgarren lan ildo. Besteak beste, negozioen dimentsioa merkatu globalera egokitzea, gorabidean dauden merkatuetara orientatzea, aliantza estrategikoen garapen posiblea, hazteko aukera gutxien duten jarduerak birbideratzea, eta irmotasunez proiektu integral korporatiboak garatzearen alde egitea bilatzen du horrek.

Horrez gainera, kongresuan adostu zuten 2012ko Gestio Plana gestio ildo horietarantz orientatu beharko dela eta, gainera, kooperatibek, datorren urtean, 2013-2016rako Plan Estrategikoak definitzeko eta dagozkien Gestio Planak hedatzeko hausnarketa egitea.

Amaiur moduan aurkeztuko dira ezker abertzalea, EA Aralar eta Alternatiba Espainiako hauteskundeetara

Amaiur da Aralarrek, EAK, Alternatibak eta ezker abertzaleak osatuko duten koalizioaren marka datozen azaroaren 20ko Espainiako Kongresuko hauteskundeetarako. Koalizio berriaren aurkezpenean, nazio eskubideak helburu izango dituztela eta autodeterminazioa aldarrikatuko dutela azaldu zuten Amaiurren bultzatzaileek. Horren harira, jakinarazi zuten Espainiako hauteskundeak "fase politiko berrian sakontzeko tresna gisa" ulertzen dituztela.

Bake prozesuari buruzko 'Pluja seca' dokumentala ikusi ahalko da eguaztenean Bergaran, Zabalotegin

Gorka Espiauk zuzendutako *Pluja seca* (Euri lehorra, nazioarteko bitartekariak Euskal Herrian) filmaren proiektzioa izango da eguaztenean, urriak 5, Bergaran, Zabalotegin, 19:00etan. Dokumentala Hegoafrikan, Ipar Irlandan eta Euskal Herrian filmatutakoa da eta Brian Currin, Rolf Meyer, Alec Reid eta Harold Good bitartekariak lehen bi lurralde horietan egin zuten lanari buruzko testigantzak jasotzen dira, besteak beste. Proiektzioa amaitzean, mahai-ingurua izango da.



NISSAN GAURSA

Nissan Gaursak Eibarren ireki du kontzesionarioa

Nissan Gaursak Eibarren dituen instalazio berrien inaugurazioa egin zuen hilaren 22n. Gaurisa taldeko zuzendari orokor Alex Rodriguezek zuzendutako ekitaldian, besteak beste, Nissan Iberiako salmenta-zuzendari Agustin Muñoa eta kontzesionarioko zuzendari Jose Luis Larrañaga izan ziren, baita udal eta inguruko enpresetako ordezkariak ere. Instalazio berriek eskaintza zabala dute gertu.

EAJk ospitaleko murrizketen aurkako mozioa aurkeztuko du erakundeetan

Haren esanetan, "ezin da utzi Debagoienean hain beharrezkoa den proiektuak halako murrizketak izatea", eta hasierakoa erreklamatzeko du

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE
Eguaztenean, irailaren 28an, bost urte bete ziren Eskualde Ospitale berriko proiektua aurkeztu zuela Osakidetzak. Eta eguaztenean bertan Debagoieneko EAJk prentsaurrekoa egin zuen proiektu hark izan dituen murrizketak salatzeko. Hala esan zuen Lourdes Idoiak: "Ospitale berria amaitzeaz dagoeneko eta irekiera 2012ko urtarrilerako aurreikusita, Osasun Saileko eta Osakidetzako arduradunek inorekin ezer adostu gabe hasierako egitasmoa murriztea erabaki dutela jakin dugu, ospitale berriaren hobekuntza nabarmenak izan zitezkeen zenbait zerbitzu kenduz".

Hiru murrizketa nabarmen
EAJren esanetan hiru dira murrizketa nagusienak. Batetik, hasierako proiektuan aurreikusitako 120 ohetatik, 80 bakarrik jarriko dira. Bestetik, eremu semikritikoa unitatea atzera bota dutela esan dute. Unitate berri horrek, besteak beste, hipertentsioa duten eta diabetikoak diren pertsonen, edo ebakuntzan zailtasunen bat

izan duten pazienteei ebakuntza ondoan zainketa berezien aukera eskainiko lieke. Aukera hori kentzean, ez dute Arrasaten ebakuntzarik egiterik izango, eta "beste behin ere pazienteak Gasteizera, Donostiara... bideratu beharko dituzte", Idoiak azaldu zuenez.

Azkenik, espezialistetan ere eragingo du murrizketak: "Urologia, Endokrinologia, Neumologia eta Neurologia gehitzea aurreikusita dago, nahiz eta ez den ziurtatzen hasierako egitasmoaren arabera egingo denik".

Horren guztiaren aurrean EAJk konklusio garbia du: "Osakidetzak dihardu gaixoarengana

zerbitzuak hurbildu beharrean, gaixoa behartzen zerbitzuen atzetik ibiltzera. Gasteizera edo Donostiara, joan beharko dugu, han dagoen pilaketekin eta itxaron zerrendak ere gero eta luzeagoak izanda".

Erakundeetara joko dute
EAJren iritziz, "ezin dugu utzi Debagoienean hain beharrezkoa den, eta adostuta eta alde guztiei jakinarazita dagoen proiektuak halako murrizketak izatea, are gutxiago inorekin ezer adostu ez denean".

Horri guztiari onartezina deritzote, eta legez besteko proposamena aurkeztu dute Parlamentuan "hasierako proiektua erreklamatzeko"; Batzar Nagusietara ere helarazi dute.

Horrekin batera eskari bera jasotzen duen mozioa aurkeztu dute bailarako udaletan eta Mankomunitatean, "indar handiagoa egiteko" eta Osasun Sailari eta Osakidetzari eskatzeko "ez babes-teko krisi ekonomikoan eta ospitalearen proiektua beste makro-proiektu guztien gainetik lehenesteko".

ESANAK

"Krisiaren izenean egiten dira halako murrizketak"

LOURDES IDOIA
DEBAGOIENeko EAJ-KO ORDEZKARIA



Debagoieneko EAJko ordezkariak Arrasateko Kulturaren egin zuten agerraldia. | MONIKA BELASTEGI

Batzordeak eratuta, dena prest Mankomunitatea lanean hasteko

M.B. | ARRASATE
Eratu dituzte dagoeneko batzordeak Mankomunitatean. Eguaztenean egindako Gobernu batzarraren adostu zituzten eta baita bakoitzerako lehendakaria izendatu ere. Hiru dira: Ingurumen batzordea, Garapen Ekonomikoa eta Turismoa eta Kontu, Ogasun eta Pertsonalekoa, berriz, Inaxio Azkarraga-Urizar, Arrasateko alkatea

Izendapenei dagokienaz, Ingurumeneko lehendakari Leire Egaña Oñatiko zinegotzia izendatu dute; Garapen ekonomikoa eta Turismoa batzordeko burua Josu Lizarralde zinegotzi oñatitarra izango da; eta Kontu, Ogasun eta Pertsonalekoa, berriz, Inaxio Azkarraga-Urizar, Arrasateko alkatea

Beste ardura batzuk
Mankomunitateak beste erakunde batzuetan izango dituen ordezkariak ere aukeratu zituzten batzar berean. Hala, Beñat Herce Eskoriatzako alkatea izango da Mankomunitatearen ordezkaria Debagoieneko Industrialdean; Inaxio Azkarraga-Urizar Arrasateko alkatea MUn eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioan hiru ordezkari egongo dira: Leire Egaña Oñatiko zinegotzia, Inma Beristain Antzuolako alkatea eta Josu Pereda Arrasateko zinegotzia.

Andoni Larrañaga | Munduko Landagunea foroko kidea

"Familia nekazaritza gosearen aurkako tresna izan daiteke"

Familia nekazaritzaz jarduteko Bilbon egingo den biltzarra antolatzen dihardu bergararrak

M.B. | ARRASATE
Munduko Landagunean diharduzu. Zer da eta zein bere zeregina?

Munduko Landagunea familia nekazaritzaren aldeko presio taldea da. Landa-garapenaren inguruko hainbat erakunde, elkarte, ikerketa zentro eta GKEkin batera lan egiten duen foroa da. Egoitza Gasteizen duen arren, nazioarteko izaera du eta Afrika, Amerika, Asia eta Europako erakunde zein pertsonen osatzen dute. Bere izate juridikoa GKE batena da eta landa garapenaren inguruan ezagutza sakondu, eragileen esfortzuak bildu, gizarte sentsibilizatu, eta garapen proposamenak aurrera ateratzeko lan egiten du.

Familia nekazaritza: mundua elikatu, planeta zaindu izeneko Munduko Biltzarra antolatu duzue Bilbon urriaren 5etik 7ra. Zer da familia nekazaritza?

Familia nekazaritza, familian oinarritutako nekazaritza eredu bat da. Familiako kideek lan egiten duten ustiapenak aintzartat hartzen ditu eta lantzen duten lurrazkiko duten erlazioan jartzen du arreta. Munduan, gaur egun 3.000 milioi lagun bizi dira landa guneean. 2.500 milioi nekazariak dira, eta ehunka milioik ere landa guneean egiten du lan, soldatapean. 1.500 milioi lagunek bi hektarea baino gutxiagoko 404 milioi lursail lantzen dituzte, gehienak hektarea bat baino txikiagoak dira. Eta nekazaritza industrian lan egiten duten langileak ez dira 20 milioi baino gehiago. Mundu osoan dagoen nekazaritzaren gehiengoak osatzen duen eredu da, eta estrategikoa da ekonomikoki, sozialki eta kulturalki duen garrantziagatik, eta lurraldeekiko eta ingurumenarekiko duen erlazioagatik.

Ze gaitasun ditu?
Familia nekazaritza, nekazal ekonomia eredu bat izateaz gain, elikagaien produkzio jasagarriaren oinarria da elikadura segurtasun eta subiranotasuna lortzeko bidean, baina hori ezin izateke posible izan, landa guneko eta itsasoetako ingurumen eta biodibertsitatearen gestio adeitsu eta jasagarria egingo ez balu.

Bilboko biltzarrean nork hartuko du parte?
Bost kontinenteetatik etorritako nekazaritzarekin lotutako eragileak: nekazari elkarte, GKE, ikerketa zentro, nekazal sindikatu eta landa-erakundeetako ordezkariak. Besteak beste, Afrikako Ekialdeko eta Mendebaldeko Nekazari Elkarteen Fede-



Andoni Larrañaga. | GOIENA

razioen, FAO eta FIDAKo kideak, eta hainbat herrialdetako nekazaritza ministerioetakoak.

Eta zein da helburua?
Familia nekazaritzaren inguruan eta horrengan eragina duten gaien inguruan eztabaidatzeko une eta gune aproposa izango da, mundu osoko eragile askok parte hartuko baitu. Familia nekazaritza, garapen eredu eta gose eta pobreziaaren aurkako tresna egoki moduan aztertu eta bultzatzea da helburuetako bat, gerora erakunde bakoitzak bere herrian egiteko lana koordinatu eta sinergiak errazteko bide bat ere izango da, erakunde ezberdinen artean erlazioak sendotuz. Horren ildora, Nazio Batuek Familia Nekazaritzaren Nazioarteko Urtea izendatu dezaten ere lan egiten ari gara, gobernuek Familia nekazaritzaren aldeko politikak bultzatzeko. Munduan 1.000 milioi pertsona goseak eta malnutrizioak jota bizi dira. Paradoxikoa da, kontuan izanda, landa guneean bizi direla, jaten eman diezaikeen lursailaz inguratuta. Ezin dute ordea lur hori landu, gubernuen politika okerrengatik.

Hitzaldia Arrasaten

Arrasateko Mundukide eta Donostiako FISC GKEekin batera garapenerako programa batean ere egiten dute lan, eta Bilboko Biltzarrerako datozen gonbidatuek hiru hitzaldi egingo dituzte handik kanpo. Bat Arrasaten izango da, urriaren 5ean, 19:00etan, Kulturaren, Harremanen laguntzaz. Rigoberto Turrak, Txileko Etnia eta Nekazarien Mugimendu Unitarioaren presidentek, egingo du.

ZABALIK

JON ETXEBERRIA
http://goiena.net/iritzia/



Mundua 2050. urtean

Nola uste duzue izango dela mundua 2050. urtean? Horrelako aurreikuspenak egitea (eta bereziki asmatzea) oso zaila da. Fisikako Nobel saridun Bohr-ek esan zuen bezala, "Aurreikustea oso zaila da, bereziki etorkizunean gertatuko dena asmatu nahi izanez gero". Baina gaur egun iragarpena unibertsitateetan lantzen den diziplina zientifiko bihurtu da. Iraganean izandako eboluzio eta jardueretan oinarrituz, ikerlariak eredu konplexuak garatzen dituzte, hipotesi desberdinetan oinarrituz, etorkizunean gertatuko dena asmatzen saiatzeko.

Horrelako ikerketa bat egin du L. C. Smithek, Kaliforniako UCLA unibertsitateko katedradunak, argitaratu berri duen liburuan: *Mundua 2050ean*. Bere ustez, lau dira munduaren eraldaketan garrantzi handien izango duten indar globalak: demografia (hazkunde ikaragarria herrialde pobreetan), kontsumorako errekurtsoen eskuragarritasuna (energia, elikadura eta uraren eskaeraren eta eskaintzaren arteko tentsioak), globalizazio ekonomikoa (munduko botere ekonomikoa gero eta esku gutxiagotan kontzentratua) eta aldaketa klimatikoa (lurraren berotzearen ondorioak). Ez du espero gaurko gure arazoak erabat konponduko dituen aldaketa teknologiko erradikalik ez energian ez eta medikuntzan, ez eta 3. mundu gerrarik, edo ezohizko gertakari lazgarriarik (izurrite larriak edota meteorito erraldoi baten erorketa, adibidez). Bere ondorioek mundua bi zatitan marrazten dute: iparraldeko gaur egungo herrialde hotzak (artikotik gertuen daudenak) aberatsagoak izango dira, boteretsuagoak eta politikoki egonkorragoak; eta ekuatoretik gertuen daudenek, aldiz, ur eskasia jasango dute, biztanleria zaharkituak izango dituzte eta hiri gainpopulatueta biziko dira.

Tamalez, Smithek irudi gris honetan ez digu argitzen ea Athleticek ligaren bat irabaziko duen edo lehendakari beltzen bat izango dugun Euskal Herrian denbora tarte honetan. Hobe horrela, emozio handiagoa izango dute ligak eta hauteskondeek.

"Iparraldeko herrialde hotzak aberatsagoak izango dira"

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

Beste hamabost egun

Ez ditut ezagutzen, baina albisteak eman dit zer pentsatua. Nola liteke baserria husteko agindua jasotzea 25.900 euroko mailegua ordaindu ez izanagatik? Kasu honek baditu beste zenbait osagai: mailegu emaile pribatu bat eta 80 urtetik gorako bi baserritar. Arrazoi teknikoak argudiatuta atzeratu omen zuten Berangoko baserria husteko agindua martitzenean. Arrazoi teknikoak eta sarrera oztopatzeko baserri atarian elkartutako jendearen babesarekin. *Hamabost eguneko arnasa Kukullari* titulatu du albistea *Berria*-n Lander Muñagorri lankide ohiak. Aginduak indarrean jarraitzen du. Nahikoa denbora izango ote dute egoera bideratzeko?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Carmen Perez:
"Ez egin etorkinari gaztelaniaz, kanpotartzat duzula adierazten ari zara"

Onintza Irureta Azkune
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Carmen Perez, *Kataluniako Plataforma per la Llengua*-ko kidea da, asturiarra da eta urte asko daramatza Katalunian; katalana ere bada. Ez zaio gustatzen "katalan hiztun berri" deitzea, "adopzioko katalan hiztun" terminoa gehiago gustatzen zaio. Perez ere, *Kulturartekotasuna. Herria, hezkuntza eta hizkuntza* jardunaldietan aritu zen.

Asturiarraren ustez, katalan hizkuntzak dituen zailtasunak immigrazioari leporatzea akatsa da. Haren iritziz, bi aldeko lana egin behar da:

- 1-Etorkinek hizkuntza bereganatzeko borondatea jarri behar dute.
- 2-(Kontu honi garrantzi handia eman zion): Lehen hitza katalanez egin behar zaio

atzerrikoari, bestela, gaztelaniaz eginez gero, kanpokoa dela esaten ari gatzazkio eta integratzeko gaztelania behar duela. Katalana bertakoentzat, etxekoentzat gordetzen dugula ulertzen du.

Agian hala gertatuko da Katalunian, baina beldur naiz Euskal Herrian, edo gehiago zapaldu dudan Gipuzkoa aldean, etorkinen pertzepzioak ez direla horrelakoak. Seguru kafea zerbitzatu digun hegoamerikarra arrotz sentitu dela gaztelaniaz hitz egin diogunean? Eta zenbat aldiz egin digu irribarre euskaraz esandakoa ulertu ez digun atzerritarrak? Ez al ditugu *feeling* keinuak baino "badakizue ez dakidala euskaraz eta zergatik tematzen zarete?" bezalakoak antzematen?

Asko eta azkar hitz egin zuen Perezek, baina bukaera eskematikoa egin zuen. Ondokoa gogoratzeko esan zigun:

-Alboratu gaztelania/katalana bikotea. Ez dira bi talde, katalan hiztun guztiok egiten dugu gaztelaniaz. Bestalde, Katalunian ez daude bi hizkuntza 250etik gora baizik (elkarri galdezka, katalan hizlariak jakin dute

262. hizkuntza atzeman duela Carme Junyent ikerlari nekaezinak).

-Kontuz ama hizkuntza etiketatzearekin. Hegoamerikarrari ez nioke belarria jango esanez bere hizkuntza inperioaren hizkuntza dela, gaztelania alegia. Edo kontuz katalana ama hizkuntza dutenak "indepe" moduan hartzearekin.

-Katalan hiztunekin egin behar da lan, lehen kolpean, adibidez atzerritarraren aurrean, hizkuntza alda ez dezaten.

-Gure hizkuntza defendatzeko erabiltzen ditugun argumentuekin kontuz. Guri balio digu esateak gure hizkuntza baloratzen dugula gure gurasoena delako, gure aiton-amonena... Haientzako katalana ez da arbasoen hizkuntza. Hizkuntza salbatzearen diskurtsoarekin ezin gara ibili haien aurrean. Bestela aritu behar dugu, adibidez, katalanak kohesio sozialerako duen garrantziaz hitz egin.

-Erakutsi katalana beraiena ere badela, hizkuntzak guztion ondare direla.

-Immigrazioa ez da arazoa, aukera da. Katalanak integrazio gaitasun handia dauka.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseminua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketaziora Inaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOTITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERRA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako initzen erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Eskuak finak eta hanka arinak

Lourdes Etxeberria, Arantza Eriz eta Imanol Aginagalde
(Kurtzebarri eskolako zuzendaritza taldea)
Aretxabaleta

Kurtzebarri eskolatik joan den zapatuan Aretxabaletako San Migel jaietan parte hartu zuten ikasle eta gurasoak zoriondu nahi ditugu.

Batetik, ferian, eskolak jartzen duen postuan egon zirenei, eta, joan den ikasturtean zehar, ortura makina bat joan-etorri egin zituztenei. Zorionak, euren eskuekin lurra ukitu zutenei!

Eta bestetik, larrin-dantzan aritu ziren guraso, ikasle eta irakasleei.

Txalo berezi bat, familia bikote osatu zutenei; horixe baita kultura transmisio naturalena.

Zorionak, euren hanka arinekin San Migeletako giroa alaitu zutenei!

Oñatiko igeriketa ikastaroen harira

Juan Luis Ugarte
(Guraso talde baten izenean)
Oñati

Oñatiko guraso talde bat gara eta bertako kiroldegiak eskaintzen dituen igeriketa ikastaroetara apuntatu genituen gura seme-alabak, eta nolako sorpresa: ia talde guztietan ordezkoen zerrendak daude eta ez edonolakoak (adibidez, 13 onartuak, 48 ordezkopak; 12 onartuak, 29 ordezkopak). Egia da talde berri batzuk sortu dituztela (eskainitako talde batzuk ez direlako osatu), baina nahikoa al dira ordezko guztiak sartzeko?

Edozein modutan, badago detaileren bat edo beste zalantzak sorrarazten dituen:

1) 4-8 urteko taldeetan haur kopurua 6-10 izanda taldean 12 onartuak izatea.

2) 3-4 urteko taldeetan haur kopurua 6-8 eta 13 onartuak.

Oinarrietan 8 edo 10 haur badira gehieneko kopurua, zergatik dira onartuak 12?

Eta zergatik ez 14?

Nola jartzen dira gutxieneko eta gehiengoko mugak?

3) Ordezko zerrenda luzeenak astelehen-asteazken egunetakoak badira, irtenbide bat emateko talde berriak sortu dituzte astearte-ostegun eta ostiral-larunbatean.

Ezin al da beste talderen bat sortu demandatzen diren asteko egunetan?

4) Sortutako taldeek 12ko kopurua daukate. Nahikoa al dira?

Maila bereko ordezkopak diren haur guztiek aukera dute talde berrietan izena emateko, eta zozketa bidez aukeraturako dira onartuak.

Arazo hau joan zen urtetik dagoela ere gogoratu behar da.

Nola egin dira zerrendak?

Puntuazio bidez ala zozketa bidez?

Puntuazio bidez egin baldin badira, inoiz ibili ez direnek ez dituzte behar diren puntuak inoiz lortuko; beraz, ibili direnek bakarrik dute aukera.

Eta hau ez da zilegi.

Denok ordaintzen dugu kiroldegiko kuota, kurtsilloetan ibili edo ez.

Proposamenak:

1) Ikastaroak urritik ekainera eta asteen bi egun izan beharrean, talde bat urritik urtarrilera eta asteen bi egunetan izatea eta beste talde bat otsailetik ekainera asteen bi egun.

2) Urritik ekainera egun bat talde bakoitzak.

Proposamen biek onartutako haurrak bikoiztu egingo lituzkete, arazoa murriztuz.

Egoera honi gehitu behar zaio urritik ekainera bitartean hurrekin igerilekura joanez gero ez dela kalerik libre egoten jolasteko, saltoak egiteko.

Bukatzeko, ez dezagun ahaztu Oñatiko Zubikoa kiroldegia zerbitzu publikoa dela.

Memoria, lehia

Angel Rekalde
Tolosa

Joseba Asironek esan zuen berriki egin den Nafarroako Historialarien Kongresuan (Nabarralde), Oñatiko Unibertsitatean: oroimenik gabeko herria ume jaioberri baten antzekoa da. Babesgabea. Etorkizuneko erronka eta ardurei aurre egiteko gai ez dena.

Mota horretako hausnarketek balio dute ikusteko historiak eta memoria historikoak daukaten garrantzia herrien soziabilitatean, globalizazioa eta industrializazio ondorengo modeloa gure bizitzetan inposatu diren garai hauetan.

Bada, Oñatiko kongresuan gauza bat geratu zen garbi: euskal gizarteak historia luze, bizi eta zoragarria duela. Eta era berean, bizi duen menderatze testuinguruaren barruan, hura ezabatu eta manipulaturia izateko borondate argia sufritzen du, eta bueltatu egin nahi gaituzte babesik gabe dagoen eta zizakatu besterik egiten ez duen jaioberriaren egoerara, burua hutsik duela.

Oñatin batu ziren txosten, eztabaida eta hausnarketetatik, hiru argumentu-hari bereiz daitezke, oro har.

Lehenik eta behin, euskal historiaren ibilbide edo ikuspegi transbertsala, diakronikoa, nabarmendu zen: pertsonalitate edo bateratasun handiko giza kolektibo bat irudikatzen duena, hausturen eta zatiketen gainetik. Euskal herria, edo baskoia, Euskal Herria, historiaren subjektu izan da mendeetan.

Eta alor askotan ikusten da hori.

Nafarroako Estatu historikotik hasita –herri hau bizi izan zen lurrek osatutakoa– euskal hizkuntzara edo Pirinioetako eskubideen ondare komunerraino, geografia osoan presente dagoena, foruetan, komunaletan eta beste ohitura eta arrasto batzuetan.

Ezaugarri adierazgarri bat dauka Arabako lurraldearen historiak; bertan, oso antzinatik, borrokaldi bortitzak eta gatazkak nabarmentzen dira, hegoalderantz eta mendebalderantz orientatuak, handik etortzen baitziren erasoak eta aurkariak. Dedukzioz, horrek esan gura du iparralderantz eta ekialderantz beste erlazio mota batzuk zeudela, lurraldetasun, antolaketa politiko eta defentsa loturak, edozein zela gradua.

Irudikapen espazialeko ariketa soil bat egiten badugu, emaitza da pertenezia-mapa bat, garaien eta mendeen gainetik mantentzen dena.

Oñatiko kongresuaren bigarren argumentu-haria izan zen 1512ko konkista eta mendebaleko lurralde hauek (konkistatuak halaber 1200ean) jokatu zuten papera inbasio hartan. Ezustekoak dira, eta berritasunak ikuspuntu historiografikotik: baskongadoen entusiasmo txikia enpresa horrekiko; eliteen papera, interes handiena zutenak negozioan; herritarrei eragindako presioak, jarritako isunak eta eragindako jazarpenak, kolabora zezaten; eta, are gehiago, asaldura eta aurkakotasun ahaleginak.

Herrixkak eta gizonak gerrara joan ziren, behartuta nolabait. 1512ko gerra herrialde guztiak sufritu zuen; alde batean zein bestean; eta onuradun bakarra inperioa izan zen, harrapakinarekin eta kolonia okupatuekin gelditu baitzen.

Oñatin aurkeztu ziren txostenek hirugarren argumentu bat ere utzi zuten, mendeetan nabarmendu dena gure begirada galduaren aurrean, baina ez dugu jakin izan hura nola ezagutzera eman.

Izan ere, herrialdea poliki-poliki okupatzen joan den neurrian, progresiboki, lurraldez lurralde (Errioxa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Sonsierra, Goi Nafarroa...), Gaztela arduratu da bere

gaiztakerien arrastoak ezabatzeaz eta gertatutakoaren memoria difuminatzeaz. Iraganaren beste kontzientzia bat asmatzeaz. Dokumentuak erre ditu, gaur egun ez daudenak. Nazioartean dauden agiritegiak arakatu behar ditugu, toponimiak, gazteluen kokalekuek eta beste elementu patrimonial batzuek jakinaren gainean jartzen duten datuak berreskuratzeko. Idoia Arrieta doktorearen txostenak dokumentu esplizitu bat dakar, Donostiako okupazio odoltsuaren datuak dituena, Gaztelako Alfontso VIII.a erregearen aipamen batekin ("Jainkoak barka dezala", sic) eta ohartarazpen-ohar batekin marjinan: "Adi! Konkistaz ari da". Ez dezala argirik ikusi; ez dezala inork ezagutu; itzalean gera dadila menderik mende.

Floren Aoiz eta Juan Antonio Urbeltz txostengileek zera azaldu zuten: asmatutako eta nahierara magnifikatutako mito, alarde eta elezaharrak erabili direla sinboloak eta ideologia sortzeko. Zatiketa baten kontzientzia sortzeko, muga militar batena, gerrako zauri batena, herritarrengan –homogeneoa, jarraitua– existitzen ez zena. Eta halaxe ospatu dizkigute Beotibar moduko batailak, edo San Martzial, gaizkileen muga baten irudia ereiten joateko, aurkari nafarraren, arrisku gipuzkoarraren, nortasun borrokatuaren eta elkarrenganako etsaitasunaren ideia asmatzeko.

Nafarroa, euskaldunen Estatua, Gaztelak zatikatu eta puskatu zuen, mendez mende. Beste herrialde batzuek egoera honetan (Flandes, Eskozia...) euren osotasun historikoaren kontzientzia gorde dute. Guk ez.

Zatitan banatu gaituzte eta uste dugu Nafarroa dela puzzlearen azken pieza bakar-bakarrik –edo azken aurrekoa–.

Memoria kontua da. Hau ere batailaren parte da. Ez dezagun borroka hau galdu utzikeriagatik, ergelkeriagatik edo ezjakintasunagatik.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Joxe Mari Aizega | Basque Culinary Centerko zuzendaria

"Sukaldariak lanbidearekiko duten pasioa ikasleei transmititzea da helburua"

- Gastronomia Zientzien Fakultatea ireki du Donostian Mondragon Unibertsitateak
- "Mundu akademikoan beste diziplina bat sortu dugu", dio BCCko zuzendariak

ENEKO AZKARATE | DONOSTIA

Astelehenean inauguratu zuten Basque Culinary Center, Goi Mailako Gastronomia Zientzien fakultatea, MUren laugarrena izango dena. Joxe Mari Aizega (Hernani, 37 urte) MUko errektoreordea da hasieratik BCC proiektuaren bulzagilea eta gaur egungo zuzendaria.

Ze komentatu dizute Basque Culinary Center proiektua eta eraikina ezagutzeko aukera izan dutenek?

Jendea eraikina gustatu zaio. Inaugurazio ekitaldiak ondo joan dira, gustura geratu da jendea, eta geu ere bai. Basque Culinary Centerren egoitza ikusi duenak ustekabe atsegina hartu du. Espazio zabalak ditu, argi asko. Eta, goi mailako ekipamenduak. Zorionak eman digu jendeak. Nortasun handiko eraikin berezia da. Jendea hartzeko eta batzeko diseinatu.

Lau urte dira proiektuarekin lanean hasi zinetela. Zeini bururatu zitzaion ideia?

Euskal Herriko sukaldari handi eta ospetsuek, batik bat, jakin izan dute sugarrari eusten, berau zaintzen. Bizirik mantendu dute. Intuitiboki, behin eta berriro aldarrikatzen zuten goi mailako sukaldaritzak unibertsitate bat. Mondragon Unibertsitateari aurkeztu zioten ideia duela lau urte. Ideia bat zen. Iruditu zitzaigun interesgarria zela eta sektore honetan aukera zegoela unibertsitate bat sortzeko.

Patronatu bat sortu duzue BCC aurrera ateratzeko. Zeinek osatzen dute Patronatu hori?

Fundazioan daude lau eragile mota: batetik, MU, hezkuntza zentro bezala; bestetik, Azti-Tecnalia, ikerketa zentro bezala; beste kolektibo bat dira sukaldariak, zazpi euskal sukaldari ospetsu; erakunde publikoak ere badaude: Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Madrileko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa. Eta badaude enpresak ere, elikadura alorrekoak: Fagor, Eroski, Martiko, Heineken eta Andaluziako Covap izeneko kooperatiba. Familia handi bat osatu dugu ekimen publiko eta pribatua uztartuz.

Ze paper hartzen du honetan guztian Mondragon Unibertsitateak?

MUK posible egin du proiektua. Unibertsitate proiektua da. Diseinu akademikoa egin dugu, bertan txertatuz sukaldaritzak. MUko fakultate bat da, laugarrena; graduak, masterrak eskaintzen ditu... BCCren jarduera guztiaren titulartatea fundazioarena da, baina



Joxe Mari Aizega, lapikoen artean. | ARTEMAN KOMUNIKAZIOA

unibertsitate eskaintza MUrena da. Proiektuari estaldura akademikoa eman dio gure unibertsitateak.

MUrendako, zer da BCC?

Laugarren fakultatea da. Ez hori bakarrik. Sektore berri bat ere bada. Orain arte aritu izan gara injinerutzan, irakaskuntzan, enpresen kudeaketan... Orain, elikaduraren eta gastronomiaren sektorean sartzen gara. Eta aukera berriak irekitzen zaizkigu.

Berrikuntza eta ikerketa da MUren eta, oro har, Mondragon Korporazioaren ikurretako bat. Fakultate berri honek eutsi egingo dio ideia horri?

Bai. Uste dut etorkizunean pentsatzen duen edozein erakundek berrikuntzaz pentsatu behar duela eta berrikuntza aplikatu behar duela. Gure kasuan, hala da. Korporazioko kooperatibak ere berri-

kuntzan aitzindariak dira eta BCC horren isla da. Sorreratik da berria.

Zela finantzatzen da BCC?

Erakunde publikoen konpromisoa izan da azpiegitura bere gain hartzea, eraikina finantzatzea. 17 milioi euroko aurrekontua izan du. Hortik aurrera, urteroko jarduna geure kudeaketa lana izango da. Ez dugu dirulaguntza estrukturalik. Matrikulen, masterren, ikastaroen eta bestelako jarduera akademikoaren bitartez autofinantzatzea da asmoa. Eraikinak aukera handiak eskaintzen dizkigu, gainera, bestelako jarduera batzuk antolatzen: aurkezpenak, jardunaldiak, ekitaldiak...

Diozue mundu mailan erreferentzia izango dela Basque Culinary Center. Zergatik?

Gauza asko ditu berritzaileak. Lehenbizi: eragile asko daude inplikaturik. Hori oso zaila eta ez ohikoa fakultate batean. Lortu dugu konplikatzea mundu mailan erreferente diren sektoreko protagonistak, sukaldariak; erakunde publikoak. Baita enpresa pribatuak ere. Bestalde, Nazioarteko Aholku Batzordea ere badugu, munduko sukaldari onenek osatzen dutena eta Ferran Adria buru duena... Denok batera goaz eta hori berria da. Erantzukizun handia eskatzen digu horrek. Bestalde, gastronomia eta sukaldaritzak alorrean berria da era honetako fakultatea. Mundu akademikoan diziplina berri bat sortu dugu.

Gainera, ikerketa zentro bat daukagu estalpe berean eta hori ere berria da.

Baina ze eskainiko du fakultate berri honek munduan dauden antzeko beste fakultate batzuek eskaintzen ez dutena?

Ameriketako Estatu Batuetan badaude antzeko eskolak, oso onak. Baina guk ikerketa zatia ere badaukagu. Eta Italian badaigo beste bat, baina ekoizlearekin lotutako gastronomia da eta ez, horrenbeste, sukaldaritzarekin lotuak. Nabarduretan dago ezberdintasuna, baina horiek oso garrantzitsuak dira.

Zein izango da mundu mailako Aholku Batzordearen ekarpena?

Helburua da guri estrategia aholkuak ematea. Mundu mailako sukaldariak egin berri dute Perun hausnarketa, etorkizuneko sukaldaritzaren gainean. Hausnarketa

hori guretzako ezinbestekoa da. Bestalde, neurri batean, gure enbaxadore ere badira. Bestalde, Patronatuan dauden euskal sukaldariak zuzen zuzenean hartuko dute parte; egunerokoan, eta baita klase magistralak ematen eta abar. Lanbidearekiko duten pasioa ikasleei transmititzea da helburua.

Noiz hasiko da ikasturtea?

Gradua datorren astelehenean hasiko da. 56 ikasle hasiko dira eta beste 14 gehituko zaizkie urtarrean, beste sukaldaritzak eskola batzuetatik datozenak. Lehen promozioan 70 izango dira, guztira. Horiek aukeratzeko, mundu oso-tik 360 eskaintza jaso ditugu. Proiektuak interesa sortu duen seinale.

Ze behar da bertako ikasle izateko?

Baldintza akademikoak ez dira bereziak. Selektibitatea nahikoa da unibertsitate batean sartzeko. Baina, bestalde, eskatuko diegu, batik bat, ilusioa. Ez da edozein titulazio. Motibazio handiarekin datoz lehen ikasleak.

Nondik datoz ikasleak?

Heren bat dira eskaldunak; beste zati handi bat Espainiako eskualde ezberdinetakoak; eta, gero, atzerrikoak ere bai.

Ze ikasiko dute?

Sukalde teknikak; zerbitzatzen; jatetxeak kudeatzen... Baina baita zientzia ere. Sukaldean eta elikaduran zientzia prozesuak daude eta horiek jakin behar dituzte ulertzen eta interpretatzen, gero, berrikuntza etorriko delako. Bestalde, gastronomia, edozein tokitako kulturaren zati da eta hori ere ikasiko dute. Eta, jakina, kudeaketa. Formazio zabal, sakon eta integrala. Diziplina aniztun formazio honekin aukera izango dute hainbat alorretan jarduteko.

Ze irtenbide izango dute?

Sukaldari buru izan ahal izango dira; zerbitzatzen dutenen buru; jatetxeetako gerente... Lan egin ahal izango dute ikerketa zentroetan elikadura alorrean, elikadura industrian, komunikazioan, kate-rin enpresetan...

Zenbat irakasle izango dira?

Lehen sei hilabeteen dozena erdi bat. Sukaldariak, historia irakasleak, informatikariak, produktuen gaineko elikadurako adituak...

Zuk zeuk ikasi duzu lau urteotan?

Izugarri. Gastronomiaren zalea naiz, asko gustatzen zait, baina alor akademikoa garatzea erronka handia izan da eta sektoreko jende askorekin lan egiteko aukera izan dut.

"Erakunde publikoen gain joan da fakultatea eraikitzea"

"Ikasleei eskatuko diegu, batik bat, ilusioa. Hau ez da edozein titulazio"

"Sukaldari handi eta ospetsuek, batik bat, jakin izan dute sugarrari eusten"

"Proiektu honi estaldura akademikoa eman dio MUK"

TORRA+PORTELLA

Zure espazioaz gozatzea gustuko duzu. Maiteenak dituzunekin batera gozatu nahi duzu haren apaingarrien dotoretasun eta gustu ona. Etxean igarotzen dituzun uneak ulertzeko modu pertsonal eta bakarra da. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU bakarra zara



prezio berezia

Lehen 2.599 €

2.099 €

174,92 € x12 hilabete interesik gabe*

Marroi txokolatean ere bai



LARRU LODITUAN



Eserleku irristagarri elektrikoak
Bizkar etzangarria



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Tasmania sofa Erosotasun eta dotoretasun proposamena, elektrikoki mugitzen diren eserlekuekin eta eskuz etzan daitezkeen burukoekin. 3 lagunentzako sofa eta chaise longuea larru loditu zurian eta marroi txokolatean. **Motorrak doan.** Neurria: 281x100/165 zm.

Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa, izakinak bukatu arte (guztira 300 sofa). BEZ barne. *Finantza-erakundeak onztat emateari baldintzatua.

DUELA 10 URTE

2001-10-02

Elorregiko biribila, ia gertu

Lehengo bidegurutzea kendu eta biribila egiteko erabiliko zuten zubi berria jarri zuten Elorregin. Kamioi eta garabi bereziak erabili zituzten 22 metroko hormigoizko zubia mugitu eta muntatzeko.

Elorregiko bidegurutzean biribila jartzeko lanak eta Epelera arteko errepidea konpontzekoak urte amaierarako amaitzea zen aurreikuspena. Elorregiko biribilak bidegurutzeko pilaketak arindu zituen.



Elorregiko zubi berria. | GOIENA

2001-10-05

Jam aretoak, 5. urtebetetzea

Bergarako Jam aretoa ireki zutela bost urte bete ziren. Denbora horretan 400 kontzertu inguru egin zituzten, asko goi mailakoak. Aretoko arduradunek orduan zioten musika arloko hainbat lagunek laudorio asko bota zizkietela euren jardunagatik.

Hala ere, aitortzen zuten uste bezain ondo atera ez ziren kontzertuak ere izan zirela, eta Andres Calamarorena aipatzen zuten zentzu horretan.

DUELA 5 URTE

2006-10-06

Arrasate Iraunkorra

Arrasate Iraunkorra izeneko foroak bere helburuak aurkeztu zituen. Etorkizun hobea bilatzen zuten, Arrasaterendako eta bailararendako. 2020ra arteko ekintzak zehazten zituen txostenean. Garraioa, etxebizitza, aisialdia... ziren gaietako batzuk. Foro aitzindaria izan zen Arrasatekoa Euskal Herrian.

LEINTZ GATZAGA

HERRITARRAK

Marcelina Plazaola 87 urte ditu, eta egunero egiten du osteratxoa ortutik, Rosario kaleko etxetik bidearen beste aldera. Domeketan meza eta karta-jokoa, eta bestela etxe inguruan | JULEN IRIONDO

"Bartzelonan, Londresen eta Parisen izan nintzen, Sorginak taldearekin"

Lehendik hona gauzak asko aldatu direla dio Marcelinak. Orain bizio larregi omen dugu, "gazteek bai baina guk ere bai", dio. Lana izan omen da bere bizitza; lana etxean, ortuan eta basoan. Denbora izan du, dena den, Europako hainbat hiri ezagutzeko. Gustatu zaizkio, baina bizitzeko ez, beretzat ez direla esaten du. **Ortu handia izan duzue zuek urteetan... Lan asko ematen zuen?** Bai. Solo asko izan dugu guk. Idi bikotea ere edukitzen genuen. Eta lana, bai, ematen zuen. Goiz jaiki, 06:00ak aldera eta lanera. Oraingo moduko bero handiekin ortuan lana egin behar zenean goiz joaten ginen; aurretik, gainera, jaten eman behar idi biko-teari! Idiak ibiltzen genituen jatekoa ekartzeko, garoa eta belarra lehortzera ekartzeko, egurra ekartzeko basotik...

Ortuko generoa etxerako ibili izan duzue, edo ferietara-eta ere joaten zineten?

Ez, ferietara ez ginen joaten, baina saldu egiten genuen: patata, babarrunak... Dendetara saltzen genituen.

Eta oraindik jarraitzen duzu ortura joaten?

Egunero joaten nahiz, asko edo gutxi, pare bat ordu-edo behintzat. Ureztatu, ortukoak ekarri... Orain gauza gutxi dago ortuan; batu ditugu patata, babarruna, tomatea... Porruak geratzen dira orain, eta azalorea.

Nolako uda izan da, bestela, orturako?

Lehor joan da aurtengo uda. Eta gero ekainean eta uztailean, hainbeste lainorekin, gorrina sartu zitzairen tomateei; belztu eta usteldu egiten dira horrela. Geratu diren aleak oraintxe ari dira ondo heltzen.

Ortua albo batera utzita, nola pasatzen duzu eguna?

Etxe inguruan. 08:00ak aldera



Martzelina Plazaola, etxetik gertu duen ortuan. | JULEN IRIONDO

"Lehor joan da uda, eta gorrinak kalte egin die gainera tomateei"

"Jaiero juntatzen gara tabernan ordu pare bat briskan ibiltzeko"

jaikitzen naiz. Bazkaria-eta prestatzen dut. Orain ez gara asko baina lehenago bederatzi-bat izaten ginen egunero, eta horrek lan asko ematen du. Orain bost izaten gara normalean. Ortutik buelta bat ere egiten dut, esandako moduan. Baina han buelta batekin ez da ezer egiten. Belar txarrak irteten du han, eta kendu egin behar izaten da. Bazkalostean ordubetxoko bat-edo geratu egiten naiz, atsedean hartzeko, hankak nekatu egiten zaizkit-eta.

Mezetara joatea ere ohitura duzu...

Jaiero joaten gara Dorletako ermitara. Sei hilabetez ematen dute han meza, maiatzetik azarora; neguan parrokiaren ematen dute. Lehen pasioan, oinez, joaten nintzen egunero Dorletaraino; orain ez.

Bizimodua asko aldatu da lehendik hona, ezta?

Bai. Orain erosotasun denak ditugu: etxean, ortuan, denean. Baina, hala ere, iritsi ezinda ibiltzen gara. "Hain ezgauzak ote gara orain!?", pentsatzen dut sarri. Orain bizio larregi ditugu; gazteek bai, baina baita geuk ere, berdin. Aldatu egin gara geu ere. Diruarekin, hara eta hona ibiltzen gara, jo eta ke. Guk, gazte-denbora etxean pasa genuen, ez parrandan. Ez zen iristen. Gainera, emakumea tabernara joatea bekatu handia zen. Ez zen oraingo moduan izaten. Gizonek egiten zuten euren txikiteoa, haiek bai, baina emakumeak etxean. Orain aldatu egin da hori, emakumeak airoso dabilta.

Zeuek ere joaten zarete?

Jaiero juntatzen gara sei edo zortzi lagun eta briskan egiten dugu pare bat ordu. Elkartean ere bai, baina tabernan juntatzen gara normalean.

Sorginak emakume taldean ere

urteetan ibili zara...

Bai, urte askoan ibili naiz, nahiz eta dagoeneko ez naizen joaten. Duela bizpahiru urte utzi nion joateari. Martxoaren 8an bazkaria izaten da Gure Ametsan, eta irteerak ere pila bat. Madrilen, Bartzelonan eta Parisen egonda gaude, eta baita Londresen ere. Izango dira dozena bat urte han izan ginela. Orain ere badoaz, baina diru askorik ez dagoela uste dut, eta Donostiara omen doaz, eguna pasatzera, zapatu honetan.

Eta, gustatu zitzaizkizun hiri handi horiek?

Bai. Desberdinak dira. Bizitzeko, guretzat ez dira, baina egunak pasatzeko bai. Leku askotan ibili naiz. Ahal izan dudun bitartean gustura ibili naiz bidaletan. Azken bidaia Sevillara egin nuen. Kua-drilan oso ondo pasatzen da. Parisera, esaterako, alaba biekien joan nintzen.

NIRE HERRIAN

AUTOBUSAK IRITSI ZIREN

Hemen denbora askoan falta izan genuen autobusa. Kostatu zen baina lortu zen. Lehen, pasatu egiten ziren autobusak, eta geratu ez. Orain goian dugu geltoki bat, eta behean beste bat. Autobus denak ez dira geratzen, baina edonora joan behar badugu ere hor egoten da aukera hori ere. Hori lortu zen.

GIDABAIMENA DERRIGOR

Herri honek duen txarrena da, dena dela, hemengo gazteek edonora lanera joan behar badute automobila behar dutela derrigorrez. Gidabaimena derrigor behar da hemen, autobusaren maiztasunekin lanerako ezin delako erabili. Gurean ere bost kotxe ditugu, eta beharra duzunean libre bat ere ez agian.

HERRIAK

ARRASATE

Maritxu: 35 urte, kantu eta webgune berriarekin

► Gaur, Nobenaixuen, MKJ kantua aurkeztuko dute, 18:30ean

► Enbutu preziatua emango diete lehen bertso eskola sortu zutenei



Neska koadrila gaztea, Maritxu Kajoi ospatzen, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Geroago eta gertuago dago Maritxu Kajoi, eta, ohiturari jarraituz, gaur, egun handia baino astebe- te lehenago, Nobenaixue ospa- tuko dute plazan (18:30-21:00). Komisioko kideek ardoa eta gaz- ta banatuko diete bertara joaten direnei, baina aurten normalean baino lanpetuago ibiliko dira, MKJ kantua aurkeztearekin batera CD horiek herritarren artean banatuko dituzte-eta. Eta, ohiturari eutsiz, gaur banatuko dituzte, baita ere, enbutu pre- ziatuak.

Bertso eskolaren sortzaileak

Iaz Arrasateko kiliki eta erral- doiek jaso zuten enbutua, eta gaurko Nobenaixuen Euskal Herrian lehen bertso eskola sor- tu zuten lagunei egingo diete omenaldia. Hain zuzen ere, iba- rreko hiru lagunek egin zuten bertsolaritzaren aldeko pauso esanguratsu hura; seguruenez, hasi zirenean helburu xumeagoak izango zituzten buruan.

1976an, oraindik ere Franco- ren denboran, Almen ikastetxean, eskola-orduz kanpo, bertso esko- lak ematen hasi ziren. Zapatue- tan batzen ziren, eta Eskoriatza- ko Juanito Akizu, jaiotzez Erren- terikoa den baina ezkondu ostean Eskoriatzara bizi izatera joan zen Santi Iparragirre eta Patxi Goikolea arrasatearrak hasi ziren.

Honelaxe azaltzen zuen San- ti Iparragirrek *Argia* astekarian 1986an egin zioten elkarrizketan (Orduan Iparralden bizi zen Iparragirre, errefuxiatuta): "Lehenengo momentu hartan hasitakoak, Sarasua hiru anaiak, Iñurrategi, Isazelaia, Arantxa Loidi, Daniel Goikolea... Koa- drila honekin gertatu zen pixka bat aurreratu genuenean bes- teekin aspertu egiten zirela, gauza sinpleegiak ikasi beharra edo, eta bereizi egin genituen. Nagusiekin Apotzaga sozieda- dera joaten ginen, eta besteekin eskolan elkartzen ginen. Bai batzuekin eta bai besteekin

EGITARAUA

08:00 Etxafuegoak.

17:30 Kale animazioa.

18:30 Konpartsa txikien lore eskaintza eta kalejira.

19:30 Oria txaranga Arrasateko kaleetan.

20:30 Koadrilen lore eskaintza.

00:00 Dantzaldia herriko plazan Luhartz taldearen eskutik.

astean behin egiten genituen bertso eskolak".

Abestia aurkeztuko dute

Omenaldiarekin batera, Nobe- naixuen aurten nobedadea den MKJ kantua aurkeztuko dute; herriko hainbat lagunek eta tal- dek auzolanean egindako abes- tia, alegia. Eta kantua aurkez- tearekin batera abestiaz osatu- tako CDa banatuko dute herritarren artean, debalde: "Kopia asko egin ditugu, 2.000", baina gaur ez dituzte denak bana- tzeko moduan izango: "Dagoe- neko banatu ditugu batzuk, konpromisoak direla-eta", adie- razi digu Maritxu Kajoi batzor- deko kide Haritz Zubiatek.

Hala, abestia fisikoki esku artean izan nahi duenak ezingo du arratsaldeko azken ordura arte itxaron, baina egunotan bertan berrituko duten webgu- nean (www.maritxukajoi.org)



Maritxutako kartela.

jaitsi egin ahal izango da: "Joan den asteen sarean entzungai jarri genuen kantua, eta oroko- rrean jendeari asko gustatu zaion irudipena dugu; iritzi hori batu dugu, behintzat. Egia da gazteen- gandik gertuago egon daitekeen musika estiloa dela; akaso, nugu- siendako zaratatsuegia", dio, barrez, Zubiatek.

Hala, aste barruan Maritxu Kajoiaren laguntzaile diren taber- netan banatuko dituzte CDak, abesti originalarekin batera berriak ere jendea dantzan jar- dezan. Webgune berria, berri,

Aurtengo eskapularioa

Urteak joan eta etorri krisialdiaren kezka handituz doa herrian eta irudimenez gainezka euro bateko pintxo poteo hori bihurtu da festa baina jarraitu gura badugu lagunartean barrezka aitzaki beharrik ezta!!!

Hala ere aurten zer ospatua bada ta ospa dezagun Jon Agirrerren irribarraz hizketan nor ez da jardun ongi etorri, besarkada bat eta muxu pila lagun ea oraindik injustizian daudenei etxetik urrun noiz ematen dizkiegun!!!



Eskapularioa.

MKJ kantuko bi mila kopia

MKJ kantue joan den asteen jarri zuten entzungai sarean eta atzoz geroztik maritxukajoi.org webgune berrian dago entzungai. Gaur, baina, 18:30ean hasita Nobenaixora gerturatzen diren herritarrei oparituko diete disko bana, kopiak agortzen diren arte. Lehenago, baina, kantua bera aurkeztuko dute.



MKJko diskoko azala.

batez ere diseinu aldetik izango du aldaketa handiena: "Lehenago eta oraingo kantuek egongo dira bertan, argazki historikoak, Mari- txuren historia, egungo materia- la eta beste gauza asko".

Udalak 20 lan kontratu egingo ditu, 6 hilabeterako

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aterako dituzte lanpostuak, enplegua sustatzeko planaren barruan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak, 2011ko Enplegua sustatzeko planaren barruan, sei hilabeterako 20 lan kontratu sinatu ditu. 20 langabe kontratatuko ditu, beraz. Hala, hautagai izateko bete behar diren baldintzak, epeak eta bestelako datu gehigarriak jakinarazi ditu. Horien artean aurkitzen dira lanpostuen zerrenda, eta egingo diren kontratuen iraupena, hasteko data eta Lanbiden izena emateko epea.

Izan ere, Udalak jaso du erantzuna Lanbideren aldetik, 2011ko Enplegu Sustapeneko kontratazioen gainean. Gogora ekarri behar da Udalak urtero langabeen kontratazio multzo bat egiten duela kanpoko erakundeen finantza-

zioarekin, eta aurtengoan Lanbideren eskutik etorri da. Jaurlaritzak 20 kontratu horien kostearen %58 jarriko du, hau da, 169.800 euro inguru, eta Udalak gainontzeko %42a, 122.848 euro. Lanpostuen artean, honakoak eskainiko dira, besteak beste: peoia, pintorea, argiketaria, gizarte-hezitzailea, dokumentalista, web orrien diseinatzailea...

Izena Lanbiden eman behar

Lanpostuak betetzeko lan eskaintzak Lanbiden argitaratuko dira hurrengo astetan, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zeintzuk diren izangaiak bete beharreko baldintza espezifikoak; baldintza orokorreki dagokionez, kontratuak

herriko langabeei erreserbatuta egonik, kasu guztietan izangaiak langabeak izan behar dira, Arrasaten erroldatutakoak, eta Lanbiden lan eskatzaile moduan inskribatuta egon behar dute.

Esan bezala, lan eskaintza hauek guztiak Lanbiden argitaratuko dira www.lanbide.net, eta bakoitzaren xehetasunak bertan azalduko dira. Interesatuak Lanbideren bitartez eman behar dute izena dagozkion eskaintzetan, beti ere eskaintza bakoitzean zehazten diren baldintzak betetzen badira. Informazio gehiago Udalaren web orrian www.arrasate-mondragon.org, BAZen -943 25 20 50- eta Udalaren Enplegu Sailean -943 25 20 70-.



Gudari Egunean manifestaziorik ez

Martitzeneko Gudari Eguneko manifestazioa ez zen egin. Baimena eskatu zuten deitzaileek, baina ukatu egin zieten, erabiltzekoa zen *Jo ta ke, irabazi arte!* leloak biktimak irain zitzakeela-eta. 19:30erako Ertzaintzaren presentzia nabaria zen, eta, liskarrik ez sortzeko, antolatzaileek manifestazioa bertan behera uztea erabaki zuten.

Udazkenerako deskontu bereziak Ibai-Arte elkartearen eskutik

J.B. | ARRASATE

Ibai-Arte merkataritza elkarteak hilerio kanpaina berria estreinatzen du. Bada, oraingoan, urrian eta azaroan eskaintza bera egingo dute, udazkenaren etorrera aprobetxatuz. Deskontu bereziak egingo dituzte datozen bi hilabeteetan. Egun horietan Ibai-Arte txartela erabiliz "ustekabeko" deskontuen zozketan parte hartzeko aukera izango dute bezeroek.

Astean zehar zoriz aukeraturako egun batean eta aurrez programaturako ordutegian burutzen diren erosketa guztiek deskontuak izango dituzte. Ibai-Arteren saltokietan gero eta

gehiago erosi orduan eta aukera gehiago deskontuez gozatzeko, beraz.

4.000 euro deskontutan

Unean bertan jakingo du bezeroak zortekoa izan den edo ez. Izan ere, datafonotik ateratzen den papertxoan agertuko da deskontua erantsita. Ekimen honen bidez Ibai-Artekoek euren bezeroak saritu nahi dituzte, "urte osoan zehar herriko merkataritzarekiko agertzen duten fideltasunagatik".

4.000 euro banatuko dira deskontutan. Hori bai, erosketak egitean Ibai-Arte txartela erabiltzea ezinbestekoa da.

NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA



Iristen ez zaizkizunak

Ez zenituen nire hitzak jaso, eta errua ez zen zure belarriena izan. Ez zenituen nire hitzak ulertu, bion hizkuntza bera izan arren. Ez zen kanpo zarata izan berbak oztopatu zituen eta ahotsaren bolumena atsegin duzun goxotasunera egokitzen saiatu nintzen. Pare pare nituen zure begiek nire begiratua jakin-minez eusteak bazuen konnotazio itxaropentsua. Logikaren ondorioei jarraituz, zugarako komunikazioak ate irekiak behar izan zituzke izan. Eta, aitzitik, nire hitzak ez ziren zure gaino iristen; hitzek ez zuten

sekula iristerik izan. Orain badakit ez nuela jakin izan uler zenezakeen horretara mugatzen, ulertzerik ez zena arazoaren eta arrazoiaren zentro izan zela. Zoritzarrez, oraindik badela.

Ezinezko interpretazioen eskale, nik neuk mugatu nuen hitz bakoitzaren biziraupena: esaldietara, segundotara... testuinguru koherente bati eusterik ez zela kontuan hartu gabe. Horregatik errepikatu nizkizun lauzpabost aldiz ustezko esaldi gakoak. Ezertarako. Errepikatu nizkizun gramatikaren legeetan oinarrituz, galdegaiari eutsiz, azpimarratze zorrotzak eginez... Zertarako? Guztia egituratzerik izango ez zenuen mezu abstraktu eta zentzubako batean amaitzeko. Zirriborro berreskurazekin bat gehiago memoriarako. Eta hala, ustekabean, ahaztu zenituen nire hitzak. Gaur, ikusterik ez duten zure belarriei ari natzaie so, keinu konplize hau jasoko dutelako ilusioz.



2011/2012 IKASTURTEA

IKASTAROAK DOHAINIK LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILEEI ZUZENDUAK			
KATALOGO MODULAR BERRIA			
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA	PRESTAKUNTZA MODULUAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	Txirbil harroketa bidezko mekanizaketan dauden makinaren eta sistemen prestatzea eta programatzea	Fabrikazio prozesu osagarriak txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
		Mekanizazio prozedurak txirbil harroketa bidez	80
	Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa	CNC programaren egiaztapena eta doikuntza txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
		Txirbil harroketa bidez mekanizatutako produktuen ezaugarrien egiaztapena	30
		(Zeharkakoa) Ingurugiro eta lan arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	30
TUTUEN INSTALAKUNTZEN FABRIKAZIOA ETA MUNTIAIA (Profesionaltasun ziurtagiri osoa)	Tutuen trazaketa eta mekanizaketa	Tutuen fabrikazioaren planoen interpretazioa	50
		Tutuen garapenaren trazaketa	40
		Tutuen mozketak eta mekanizazioa	60
	Tutuen konformazioa eta antolaketa	Konformazioa eta kurbatzea tutuen fabrikazioan	40
		Tutueriaren gauzatzea	70
	Tutuen muntiaia	Tutuak muntatzearren antolaketa eta garapena	60
MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA INSTITUZIOETAN (Gaitasunaren egiaztapenerako baliagarriak)	Instituzio arloko ekintzen antolakuntza laguntza	Instituzioetako menpeko pertsonen harreraren laguntza	30
		Instituzioetako menpeko pertsonentzat ekintzen antolakuntza laguntza	70
	Instituzioetako arreta soziosanitarioren bitartekotza		70
IBILGAILUEN KARROZERIKO ESTRUCTUREN MANTENTZE LANAK	Elementu finkoak	(Zeharkakoa)Elementu finkoen desmuntzea eta banatzea	60

DOAN KATALOGO MODULARRETIK KANPO

Posizio horizontaleko TIG soldadura	50
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50
Gas fluoratuak maneiatzeko baimena	40
Karretila jasogailua gidatzeko baimena	20
Soldatzaileen Homologazioa	60

DOAN LANGABETUENTZAKO

Geriatria laguntzarako zaintzak	354
Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa	468
Karrozeria	400
Giro naturaleko soldadura	445



ETXEBARRI AUZOA, ZG / 22Pk. 20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA) WWW.IARETXABALETA.COM

IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

Urriak 8 **IV. IKASTOLA**
EGUNA

40
urteurrena

BAZKARIA


frontoian

Zatoz Aranzadi Ikastolaren...
...40. urtebetetzea ospatzera!!!

ibilaldia



dantzaldia



jokoak



bazkaria


ARANZADI
ikastola
Kalitatezko
Euskal Heziketa



eskulanak

Urriak 2: **Kilometroak** Azpeitian

Urriak 8: **IV. IKASTOLA EGUNA** Aranzadin

Urriak 16: **Nafarroa Oinez** Tafallan

Bazkarirako izen-ematea: Aranzadi Ikastolan irailaren **23tik** urriaren **5** arte

San Martin Plaza 4 • 20570 BERGARA

Tel. 943 76 90 71 • bergara@ikastola.net • www.aranzadiikastola.org

Hasi dira San Migelak Garagartzan, ekitaldi garrantzitsuenen zain

J.B. | ARRASATE

Atzo hasi ziren jaiak Garagartza auzoan, San Migelen omenezko mezarekin, eta domekara arte izango da jai giroa auzoan. Izan ere, haur, gazte zein helduendako egitaraua prestatu dute auzotarrek –ikus egitarau osoa 30. orrian.

Aurten ere, nola ez, buzkanzak izango dira jaietako protagonista nagusiak. Gaur eta bihar dastatu ahalko dira Patxi-senea auzo-etxean, 18:00etatik aurrera. Agirre-Etxe eta Otamendi harategiek egiten dituzte urtero; Agirre-Etxeko Iker Agirreurreta harakinaren arabera, 250 bat kilo prestatu dituzte: "Iaz baino zertxobait gutxiago prestatu dugu, auzotarrek

hala eskatuta. Urtero moduan, ardi odolaz egindakoak dira, goxo-goxoak".

Bertako lau talde gaur

Buzkantzek auzoko jaietan duten pisuaren adierazle da gaurko musika jaialdia (22:00). *Buzkantza Rock* izenarekin bataiatu dute: agertokietan debuta egingo duen Garraxi, The Magnificents, jaialdirako propio sortu den Mango Baltzak eta Kañeria 13 taldeek joko dute. Arrasatekoak dira talde guztiak eta auzo-koak bertakoak musikari gehienak. Bihar, berriz, Txatxilipurdiren puzgarri eta tailerrak (12:00-14:00), Gorritiren animaliak (17:30) eta Txinpartaren dantzaldia (22:00) ez dira faltako.



Sortzen ikusi zuen auzoan joko du Kañeria 13 taldeak gaur. | ARTXIBOA

Herritik irtetearen aurkako kultura errezeta zabala atera du Udalak

Urritik abendura arteko egitaraua auzkeztu zuen Kultura Sailak eguaztenean

T. MADINA / J. BEREZIARTUA | ARRASATE
Ekitaldiz lepo dator udazkena Amaia antzokiarendako. Ikuskitunez beteta eta aurpegi berriarekin. Izan ere, espero dute urriaren 7rako antzokiko ataria egokitze lanak amaitzea. Udalak eguaztenean aurkeztu zuen urritik abendura arteko egitaraua; Karmelo Alberdi eta Jon Garai teknikariak eta Kepa Urteaga Kultura zinegotziak izan ziren aurkezpenean. Urteagak adierazi zuen kultura eskaintzaren asmoa dela arrasatearrek kulturaz herrian bertan gozatzea, kanpora irteteko beharrik izan ez dezaten.

Zinema, antzerkia, musika...

Egitaraua gaur bertan jarriko da martxan. *Euskal keramikagile garaikideak* izeneko erakusketa irekiko dute Kulturateko klausetroan, urriaren 31ra arte.

Zinemari dagokionez, Donostiako Zinemalditik pasa diren euskarazko bi pelikula ikusiko dira urrian: 14an, 16an eta 17an *Bertsolari* eta urriaren 29ko asteburuan, *Urte berri on amona!* Zinekluba, gainera, egunez aldatu dute: aurrerantzean, egunean beharrean, martitzen izango da. 20:30ean hasiko dira zineklu-



Oreka TX, Kukai Dantza eta Amaren Alabak-en *Hostoak* ikuskizuna. | GOIENA

beko emanaldiak; urriaren 18koa, baina, 19:00etan hasiko da.

Antzerkian, Oreka TX-ek, Kukai dantza taldeak eta Amaren Alabak-eko neskek txalaparta, musika eta dantza uztartzen dituzte *Hostoak* ikuskizun arrakastatsuan –argazkian–, eta abenduaren 17an etorriko dira gurera. Antzerki emanaldietan, bestalde, Yllana eta Ttanttaka taldeen azken antzezlanak pasako dira Amaiatik. Yllanak *Sensormen* antzezlan aurkeztuko du urriaren 23an eta Ttanttakak, *Ipar haizearen kontra* urriaren 30ean. Enfilat's talde kataluniarrak, bestalde, *Plecs* antzerki-zirkua ekarriko du. Umeendako antzerkiak ere izango du bere tarte: urriaren 1ean *Tira! Aurrera!* lana egongo

da ikusgai Pantha Rei taldearen eskutik; urriaren 15ean, aldiz, Vaivenen *Miauless*. Abenduaren 10ean Teatro Paraisok *Ezetz hegan egin* antzezlan eskainiko du.

Musikan, *Mujeres Frontera* izeneko emanaldia egingo dute azaroaren 5ean hainbat musikariren parte-hartzearekin; abenduaren 23an aldiz, gorpela egongo da Chicago Mass Choirren eskutik. Abenduaren 31n, amaitzeko, Arrasate Musikaleko banda igoko da agertokira.

Eta, noski, urteroko hitzorduen artean, ezin ahaztu *La Revoltosa* zarzuela –azaroaren 18, 19, 25 eta 26an– eta Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa. Aurten egun bat gutxiago izango du: abenduaren 3tik 6ra izango da.

OHARRAK

IRATXERA IRTEERA ABAROTIK
Urriaren 19an joango dira. Urriaren 3an eman behar da izena, 10:30ean. Pertsona bakoitzak 27 euro ordaindu beharko ditu. Hiru autobus irtengo dira eta lekuri soberan balego gainerako erretiratu-etxeetakoek aukera izango dute hara joateko.

MUSIKA AKADEMIAK

Lazkano musika dendan gitarra, baxu, bateria edo bestelako instrumentuak jotzen ikasteko aukera dago. Zarugalde kaleko denda eman behar da izena, honako

ordutegian: astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara.

Bestalde, Jesusi Etxebarriaren akademian ere aukera dago izena emateko. Izena emateko: 943 79 17 67 / 652 71 38 28

DANTZA TRADIZIONALAK

Portalo taldeak antolatuta, plazako dantza tradizionala ikasteko aukera dago. Urriaren 7an baino lehen eman behar da izena, AED (943 77 12 28) edo Gazte Bulegoan (943 25 20 65). Urriaren 10ean hasiko da ikastaroa.

Azaroaren 20ko hauteskundeetarako hautesle zerrendak jendaurrean erakutsiko ditu Udalak

Udalak jaso ditu hauteskunde zentsuaren zerrenda berriak. Hala, azaroaren 20an egingo diren Espainiako hauteskunde orokorretarako hautesle zerrendak jendaurrean erakutsiko dituzte BAZEN urriaren 3tik 10era bitartean –biak barne–. Ordutegia honakoa da: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 19:00etara; eta zapatuan, 09:00etatik 13:00etara. Erreklamazioak epe, ordutegi eta leku berean egin beharko dira. Lehenago agertu direnek ere egiaztatu beharko dute zerrenda berrietan ere agertzen direla.

www.citroen.es

POSITIVE IZATEKO BESTE ARRAZOI BAT.

CITROËNen RENOVE PLANA

HILABETE HONETAN,
ZURE AUTO ZAHARRARI **2.400 €**
ETEKINA ATERA.*

Jarrai gaitzazu: CITROËN prefere TOTAL

Ondo pasa
San Migeletan!

CITROËN C4 BERRIA. POSITIVE POWER

e-HDI MOTORRA / STOP & START / eTOUCH / AURREALDEKO ESERLEKUAK ERREGULAZIO LUNBAR ELETRIKOAREKIN ETA MASAJE FUNTZIOAREKIN / ANGELU HILAREN ZAINTEZ SISTEMAK / ABIADURA MUGATZAILE-ERREGULATZAILE PROGRAMAGARRIA / %15ERAINOKO ERREGAI KONTSUMOAREN MURRIZKETA / 6 ABIADURAKO ESKUKO KAXA PILOTATUA MARTXA OPTIMIZATUEKIN / ENERGIA BERRERAKUTZE SISTEMA DEZELERAZIO FASEAN.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) /IGORPENA CO2 (G/KM): C4 BERRIA : 4,0 – 6,9 / 104-159

* Deskontua Citroën C4ren salneurriarekiko (irailen gomendatua), zergak barne, Banque PSA Financieren bidez gutxienezko 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duten bezero partikularrendako, trukean beste auto bat utzita; hilabetea amaitu arte, parte hartzen duten salmenta puntuetan. Eskaintza ez da bateragarria. www.citroen.es webgunean baldintzak kontsultatu. Ikusten den modelua: Citroën C4 Exclusive berria.

TALLERES CHAPIME, S.C.L. San Andrés Auzoa 5 • ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22 • Faxa: 943 77 10 47



Lezaman ligako lehen partiduan zelairatutako Mondraren hamaikakoa. | MAITANE GALLASTEGI

"Lehiakorrak izateko %200 eman behar dugu partiduetan"

Lezaman galdu ostean Mondrako neskek Mojategin egingo dute debuta

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondrako neskek Logroñoko Revellin taldearen kontra jokatuko dute domekan (12:00etan Mojategin). Etxeko zaleen aurrean debuta izango da, joan den astean ligako oilarretako baten etxean, Lezaman, galdu ostean (3-1): "Athleticen kontra galtzea aurreikuspenetan sar zitekeen zerbait da, baina hango teknikariek zoriondu egin gintuzten partidu amaieran, buruhauste bat baino gehiago emateko gauza garela ikusi zutelako. Emaizta horrekin inor ezin daiteke pozik geratu, baina balorazio positiboa egin geneza-

ke, zuri-gorriak ondo estutu genituelako, batez ere 2-1ekoarekin. Garbi dagoena da liga honetan lehiakorrak izan nahi badugu

%200 ematera irten behar dugula zelaira, dena eman behar dugula; bestela, jai dugu", adierazi digu taldeko entrenatzaile Jon Zuloagak.

ESANAK

"Galdu arren, Athletic estutzeko gauza izan ginen"

JON ZULOAGA | ENTRENATZAILEA

Omenaldia domekan

Domekako partiduaren aurretik, taldearen 25. urteurrenaren barruan omenaldia egingo diete Rosi Katangari eta Roman Lopezi, haiek sortu zuten-eta taldea 1987an. Horrekin batera, esan beharra dago Mondrako nesken partiduak debalde jarraitzeko -Mojategikoak- laguntzaile txartelak atera dituztela.

"Tira aurrera!" haur antzerkia zapatuan

5 urtetik gorako haurrei zuzendutako antzerkia egingo dute Amaian, 17:00etan hasita

X.U. | ARRASATE

Panta Rhei antzerki taldearen eskutik -eta suediar talde baten kolaborazioarekin- haurrendako antzerki emanaldia izango da zapatuan Amaia antzokian (17:00).

Bi gai jorratzen dituzte lanean

Tira aurrera! emanaldian bi gai jorratuko ditu Juan Rodriguez zuzendariak: batetik, haurrak eta nagusiak kontrajartzen ditu; eta bestetik, haurrek hirian bizi duten egunerokotasuna aztertzen du. Eta hori guztia Pailaza izeneko pertsonaniaz baliatuta.

Pailaza panpina bat da, eta helburu bakarra du bizitzan: zoriontsu izatea eta ondoan dituenak ere zoriontsu egitea. Zorigaiztoko egun batean, baina, zaka-rrontzian amaitu du, pelutxe eta abandonatutako jostailu koadri-

larekin batera. Hala, Pailaza eta gainontzeko panpina eta jostailuak arrisku bizian daude: zabor kamioi birrintzailea dator! Hori dela eta,

Pailaza lasterka abiatu da hirian zehar laguntza bila. Bidean hamai-ka arrisku gaindituko ditu, eta gatibu diren haur asko, beti zain-tzapean, aurkituko. Haurrek lagundu egin nahi diote, baina ezin. Mehatxuak, hesiak, debekuak, gatazkak eta gehiegikeriak gor-detzen ditu hiriak.

Pailaza konturatuko da bene-tako miraria dela hirian bizirik irautea, baina, ekimen eta bizita-sunez beteta, elkartasun idealen atzetik egingo du korrika.



Lilura

OIHALAK

Egin zure jantzia.

Konpromisorik gabeko aurrekontua.

Poltsak, eskularruak eta galtzerdiak bezalako osagarriak eskaintzen ditugu.

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

Laura Saez AKE taldeko squash jokalaria bigarren mailako Espainiako txapeldun izan da

Joan den domekan jokatu zuten, Iruñean, Espainia mailako squash txapelketa, eta Eskoriatzan bizi den eta AKEko kide den Laura Saez txapeldun izan zen bigarren mailan. Aurten beste urte batzuetan baino neska gutxiagok hartu dute parte txapelketan: lau jokalaria aritu ziren lehian; lehenengo, ligaxka moduko bat jokatu zuten eta zapatuan, finalerdiak jokatu zituzten. Kanporaketan aurrera eginda, domekan Ana Buizanen kontra jokatu zuen finala eta Saezek 3-0 hartu zuen mendean Buizan. Hala, AKEko kideak bigarren urtez irabazi du Espainiakoa.

Urrian hasita AUKEAk gimnasia hipopresiboa egiteko ikastaroa eskainiko du

AUKEAk gimnasia abdominal hipopresiboa eskainiko du, urrian hasita. Ikastaro horrek hilaibete iraungo du eta gizonezkoendako zein emakumezkoendako da. Astelehen eta eguaztenetan izango da, 17:30etik 20:30era, eta ikastaro bakoitza ordubeteko izango da. Izena eman nahi dutenek 35,75 euro ordaindu beharko dituzte eta abonatuta ez daudenek, 45,75 euro. Gimnasia hipopresiboaren onuren berri izan nahi duenak dei dezala 672 275 578 telefono zenbakira, eta Nuriagatik galdetu.

Jokoen bitartez eta gorputzeko atalak erabilita pintura ikastaroa egingo dute Emakume Txokoan

Emakume Txokoan gertu dituzte urrian bertan hasiko dituzten ikastaroak, eta horietako bat izango da jokoen bitartez eta gorputzeko atalak erabilita egingo duten pintura ikastaroa. Eguaztenetan emango dute ikastaro hori (18:00-21:00), eta Laia Bedos izango da irakaslea. Ikastaroan izena emateko ez da beharrezkoa aurretik margotzen jakitea, naturaltasunez eta modu askean margotzen ikastea izango da helburua. Izena eman nahi duenak dei dezala 943 79 41 39 telefono zenbakira.

Kaxoi flamenkoko eta kustomizazioko ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak

Kaxoi flamenkoko ikastaroa Periko Raez perkusioilariak eman- go du eta urriaren 13tik abenduaren 1era arte izango da, Kultu- raten, eguenetan, 18:00etatik 20:00etara. Kustomizazio ikastaroa, berriz, Itsaso del Rey diseinatzaileak emango du, eta urriaren 19an hasi eta azaroaren 30ean amaituko da, Kulturaten, eguaz- tenetan, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroetan izena emateko 20 euro ordaindu beharko da -12 euro ikasle eta langabeek-. Izena emateko jo Gazte Bulegora (943 25 20 65).



PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

URRIA - EKAINA, ASTELEHENETAN

Hiru maila

HASIERA: urriak 10

1. mailako ordutegia: 18.30 - 20.00

IZENA EMATEA epea: URRIAK 7
AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkartea.com
GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Antolatzailea

PORTALOI taldea
Herri kantu eta dantza

Laguntzaileak

aed arrasate euskaldun dezagun

gaztebulegoa.com

Ibaiondon adjudikatutako proiektuak 48.000 euro gehiago balioko du

Hasieran aurreikusten ez ziren lan gehigarriak egin beharko dira; tartean, ur hornidura lanak Aspace inguruan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Ibaiondoko urbanizazio lanen adjudikazio osagarria adostu zuen udalbatzak astelehenean. Udaren atarian hasi zituzten lanok, 367.629 euroko aurrekontuarekin. Baina udal aparejadoreak egindako txostenean, proiektuan eta adjudikazioan aurreikusten ez ziren lan gehigarriak ziren; tartean, ur hornidura lanak Aspace inguruan, telekomunikazio azpiegituraren instalazio berria eta beste lan txiki batzuk. Lan gehigarri horien aurrekontua 48.595 euro da eta Ibaiondon lanean dabilen enpresari egin zaio adjudikazioa.

Asteleheneko osoko bilkuran, Aintzane Oiarbidek (EAJ) koordinazio falta leporatu zien proiektuko arduradunei eta horrelakoak ez errepikatzeko zorrotasuna eskatu zuen, "are gehiago krisi garai honetan". Jesus Elortza alkateak egondako akatsa aitortu zuen eta zorrotza izatearekin ados azaldu zen. Era berean, egondako akatsak detektatzeko hirigintza teknikoari txostena egitea eskatu zaiola esan zuen alkateak.



Ibaiondoko lanak ekainean hasi zituzten eta abendurako amaitzea da helburua. | E.M.

Abendurako amaituta

Aipatutako lanek ez dute eraginik hasieran zehaztutako epearekin: abendurako amaituko dituzte. Aparkalekuen arazoari irtenbidea ematea, erreka bazterra balioztatzea eta Aspace ingurua txukuntzea dira proiektuaren ardatzak.

Bestetik, Udalaren egoera ekonomikoari buruzko osoko bilkura monografikoaren data zehazteko Diputazioaren zain daudela esan zuen alkateak. Seminarioko eraberritze eta irisgarritasuna hobetzeko egindako lanak direla eta, Udalari 35.434 euro ordaintzea

dagokio. Azkenik, urriaren 15eko Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren aurrean, atxikimendu kanpainarekin bat egitea adostu zuten astelehenean. Auzoen batzordean gaiari jarraipena egitea izan zen Oiarbide zinegotziaren eskaera.

San Joxepe elkarteko 80 lagunek astebete egin dute Cadiz aldean

Astelehenean iritsi ziren; urriaren 17tik 30era ospatuko dute aurten kultura hamabostaldia

E.M. | BERGARA

Astelehenean iritsi ziren Bergarara San Joxepe elkarteko lagunak, Cadiz aldean astebete egin ondoren. Iazko bidaian Talavera de la Reinan hartu zuten ostatu, Gaztela ezagutzeko, eta aurten

Chipionako hotel baten egon dira; handik aterata hainbat irteera egin dituzte.

San Martinen ostean, irailaren 19an atera ziren Andaluzia aldera, autobusez. 80 lagun joan dira Cadizera, Bergarakoak denak, Elgetako

eta Gasteizko bi bikote lagun izan ezik. Carlos Arrondo San Joxepe elkarteko presidenteak adierazi digunez, oso ondo ibili dira.

Eguraldia lagun, toki ederrak ikusi dituztela esan digu Arrondok: batean San Fernando, Chiclan eta Jerez de la Frontera (Williams & Humbert upelategi ezagunak bisitatu zituzten han); hurrengo Arcos de la Frontera, El Bosque eta Ubrique; Cadiz hiriburura eta San Lucar de Barramedara ere beste irteera bat egin zuten; eta, azkenik, mendi aldean ere ibili dira, Bejer de la Fronteran eta Medina Sidonian, hain zuzen ere. Bitxikeria bat ere eman digu Carlos Arrondok: "Harritzekoa bada ere, Espainia-

ko toki euritsuena Cadizen dago: Grazalema. Hara ere joan ginen. Zorionez, primerako eguraldia izan dugu bidaia osoan zehar, epel, tenperatura atsegina". Iazko iraileko bidaian 59 lagunek hartu zuten parte, eta, alde horretatik, behinik behin, arrakastatsuagoa gertatu da Cadizkoa. Eroski Bidaiekin egin dute bidaia aurten. Kolore onarekin itzuli dira bidaiariak.

Hitzaldia eta jarduerak

Astelehenean, urriaren 3an, hitzaldia izango da Boni Laskuraingo egoitzan. *Ongizate ariketak* izenburupean, ariketa fisikoaren onurak eta gimnasia egiteko aholkuak eskainiko ditu Jose Mari Avilak, 17:30ean hasita. Kutxa Ikasgelak egitarauaren barruan antolatutako hitzaldia da.

Bestalde, dagoeneko martxan dira hainbat jarduera erretiratuengoez: yoga eskolak astelehen eta eguaztenetan; eskulanak martitzenetan; bingoa eguaztenetan; eta pintura eskolak egubakoitzean. Edozein argibidetarako 943 76 21 40 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.

Kultura hamabostaldia

Bestalde, kultura hamabostaldia urriaren 17tik 30era ospatuko dute aurten. Programa ixten ari dira zuzendaritzako kideak. Aurreko urteotan bezala, hitzaldiak, irteerak eta bestelako jarduerak izango dira. 15. ekitaldia izango da aurtengoa.

Ahate ugari hilda agertu dira Deba ibaian

E.M. | BERGARA

Azken egunotan ahate mordoak agertu da hilik Deba ibaian zehar, Bergarako tartean. Udaltzaingotik martitzenean adierazi zigutenez, orain dela pare bat asteko kontua da. "Ahateak hilik agertu zirenean SOS Deiekin jarri ginen harremanetan, eta haiek bideratu zuten arazoa Diputazioko teknikarien bitartez". Bada, hildako zenbait ahate eta ura eramantutako analizatzera, eta, lehen datuen arabera, badirudi gertatutakoa ez dela isurketa baten ondorio izan. Udaltzaingoko iturriek azpimarratu dutenez, euri gutxi egin du azken asteotan eta oso ur gutxiarekin dator ibaia. Ura ustelduta egon liteke zenbait puntutan, eta, antza, horrek eragin du ahate asko eta asko hiltzea.

OHARRAK

1961EAN JAIOTAKOAK

Urriaren 8an bazkaria Lasa jatetxean, 50 urte egiten dituztela ospatzeko. Izen-ematea Nahikari (943 76 57 71) edo Dixula tabernan (943 76 44 95) egin daiteke.

1941EKO BERGARARRAK

1941. urtean jaiotako emakume eta gizon bergararrek bazkaria egingo dute urriaren 15ean Tartufon, 14:30ean. Ordu erdi lehenago, 14:00etan, Santa Marina aurreko bus geltokian elkartuko dira autobusez igotzeko San Juanera. Lazkano oinetako-dendan eman behar da izena, 20 euro ordainduta, urriaren 11 baino lehen.

1944AN JAIOTAKOAK

Urriaren 22an bazkaria Zumelagan. 13:00etan elkartuko dira Irala kalean. Izen-ematea urriaren 15era arte dago zabalik: 943 76 21 86 (Ana Mari), 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia) edo 943 76 10 32 (Florita).

UDALAREN OHARRA

2011ko ekonomia jardueren gaineko zergaren erreziiboak ordaintzeko borondatezko epea urriaren 1etik azaroaren 10era arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errekarquaz kobratuko dute. Erreziboan ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxearen bidez bidali eta kobratuko zaie. Besteek etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria urriaren 31 baino lehen. Horrela izango ez balitz, Kontu-hartzailetzara jo beharko dute.



San Joxepeko lagunak, Cadizen ateratako argazki baten. | JOSE MARI GURIDI



Jose Angel Mikeo, alkate makilarekin. | JOSE ANGEL ARRIARAN



Jende asko batu zen domeka eguerdian parrokiako elizpean ekitaldia jarraitzeko. | J.A. ARRIARAN

Alkate izendatzea egin dute Angiozarren, San Migel jaietan

Jose Angel Mikeo izendatu zuten, Mila Elortzak bi urtez jarraituko duen arren

E.M. | BERGARA
San Migel jaien barruan, Angiozar Bailarako Batzarraren eta alkatearen aldarrikatze ekintza egin zuten domekan, elizpean, meza

nagusiaren ondoren. Ainhoa Larrañagak aurkeztutako ekitaldian, Jose Angel Mikeok eta Mila Elortzak jaso zuten alkatearen makila; bi urtez jarraituko du

Elortzak alkate eta 2013an hartuko du ordezkaritza Mikeok. Domekako ekitaldian, Jesus Elortza Bergarako alkatea eta Leire Iruin Kultura zinegotzia izan ziren.

Mila Elortzak irakurri zuen batzarreko akta eta Mikeok hitz batzuk esan zituen batutakoen aurrean. Azken hiru urteotan herritarren artean landutako Berpiztu planaren garrantzia (Udalean onartu gabea oraindik) gogora ekarri eta hurrengo erronka AHT izango dela azpimarratu zuen. Jesus Elortzari eman zion hitza jarraian eta Bergarako alkateak angiozartarren herri izaeraren harrotasuna nabarmendu zuen: "Gainera, zuen alkateak makila dauka eta Bergarakoak ez", gehitu zuen, umorez. Ekitaldia amaitzeko, bertaratuek akta liburua sinatu zuten, egunaren testigantza uzteko.

70 lagun danborradan
Bestalde, jaietako ekitaldiak aurreko asteburuan izan ziren eta egubakoitzeko danborrada izan zen ekitaldi nagusietako bat. 70 lagun inguru atera ziren, haur eta nagusi. Zapatuan herri bazkaria eta domekan pilota txapelketako finalak egon ziren. Atzoko, San Migel eguna, hainbat ekitaldi zeuden iragarrita. Ohiturari eutsiz, iluntzean santuaren zeruratzeara egitekoa zen. Ea noraino heltzen den aurtun.



Neska-mutiko talde bat eta Anselmo Vega Mito ezaguna, egubakoitzean, danborradan. | MIKEO

Batzokia berriro zabalik

Uztaila ezkerro itxita egon ostean, berriro zabaldu dute batzokiko taberna eta jatetxea. Mikel Quesada eta David Saiz bizkaitarrak dira arduradun berriak. Eguneko menua eta bestelakoak eskainiko dituzte aste osoan (astelehenetan itxita izango da). Bi jangela ditu batzokiak: 25 bat lagunendako bata eta 70 bat lagunendako bestea.



EDU MENDIBIL

Esperientzia Eskolan matrikula zabalik urriaren 14ra arte

Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik dago urriaren 14ra arte. 50 urtetik gorakoei zuzendutako eskola da: zahartze aktiboaren bitartez, bizi kalitatea hobetzea da helburua. Kultura formazioa eta informazio aukerak sustatuko dituzte antolatzaileek. Matrikularen prezioa 275 euro da. Argibideak Bizikasin (943 76 93 94, Miren).

San Lorentzoko auzotarren afaria bihar Agorrosinen

San Lorentzoko auzotarrek ospakizuna izango dute bihar, zapatua. Taldeko argazkia aterako dute Madura elkarte ondoan, 19:15ean, eta 20:00etan meza izango da hildako auzotarren omenez auzoko ermitan. Ondorengo afarian, Agorrosinen, 110 lagun inguru elkartuko dira. Javishow oñatiarrak alaituko du afalosteko dantzaldia.

Kukutza gaztetxearen aldeko manifestazioa gaur arratsaldean

"Azken egunetan Errekalde auzoan Kukutza gaztetxearen hustuketa bortitza, neurririk gabeko portaera polizialak eta eraipen samingarria" direla-eta, manifestaziorako dei egin du Bergarako gaztetxeak gaurko (hilak 30). San Martin plazatik abiatuko da manifestazioa, 19:00etan, *Kukutza aurrera, ametsak ez dituzue botako* lelopean.

Txapa Irratiko bilera irekia domekan gaztetxean

Domekan, urriaren 2an, Txapa Irratiaren bilera irekia izango irratiko lokalean, Bergarako gaztetxean, 19:00etan. Ikasturte berrirako programazioa zehaztu nahi dute, eta, hori dela eta, irratsaioren bat eginez edo bestelako proiektuetan parte hartu nahi duten guztiak daude gonbidatuta bilerara.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Hodei Orobengoari. | GTXE.ORG



Mikel Aristi. | GTXE.ORG



Eneko Lizarralde. | GTX.ORG

Debabarrena taldean korrituko dute Orobengoak, Lizarraldek eta Aristik

Aurten hirurek lortu dituzte garaipenak, nahiz eta Aristi nabarmendu den

XABIER URTZELAI | BERGARA
Lokatza-Sumofic taldeko Hodei Orobengoari, Mikel Aristiri eta Eneko Lizarralderi afizionatu mailara salto egiteko ordua iritsi zaie, eta Eibarko Debabarrena taldearen eskutik egingo dute saltoa. Hala, gazte mailan azken urte onaren ondoren kategoria berrira moldatzeko lanetan ikusiko ditugu datorrenean.

Atsedean hartu, eta erabaki
Denboraldia amaitu dute ziklistek, eta atsedean hartzeko ordua da. Atsedean hartu, eta datorren denboraldian zer egin erabaki-

tzeko unea. Afizionatu mailarako saltoa ez da erraza, eta talde gehienetan nahi baino leku gutxiago izaten da. Lizarraldek, Aristik eta Orobengoak, baina, ez dute arazorik izango bizikleta gainean jarraitu ahal izateko. Bergarako hiru txirringulazkoak urte oso ona egin dute, hirurek lortu dute aurten garaipen bat, eta sarri egon dira podiumean –Aristiren denboraldia ikusgarria izan da.

Hainbat eskaintza
Aristiren kasuan, gainera, aurten egin duen denboraldi ikusgarriaz –Hainbat lasterketa irabazteaz

batera Gipuzkoako txapeldun eta Iruñerriko Itzuliko txapeldun izan da, eta Espainiako selekzioaz izan da Europakoan –Bergarakoak talde askotako eskaintza zuen, baina taldekideekin batera jarraitzea erabaki du, gauzak ondo eginez gero datozen urteotan izango duelako afizionatu mailako talde indartsuetara salto egiteko aukera.

Hala, datorren denboraldian Lokatza-Sumofic taldeko harrobiak emandako lau ziklista izango dira Eibarko taldean, aipatutako hiru ziklistekin batera Jon Rivero ere Debabarrenan dago-eta.

Hamalau talde Labegaraietako torneoan

Bihar eta etzi jokatu dute lehenengo jardunaldia

X.U. | BERGARA
Oraingo asteburuan hasiko dute Labegaraietako txapelketa, eta antolatzaileak pozik azaldu dira, talde kopuruari eustearekin batera hainbat talde berri jokalaria gazteekin osatutakoak dira-eta: "Iazko bi taldek ez dute izenik eman (Jabulani eta Cosa Nostra), baina beste hiru taldek eman dute izena: Lonja Team United, Beti Gorri eta La 12. Hiru talde horietako bi Bergarakoak dira, eta pozik gaude jende gaztea dagoelako talde horietan. Azken batean, horiek berpiztuko dute txapelketa", adierazi du torneooko antolatzaile Pedro Zafrak.

Arau berriak izango dira
Lehenengo jardunaldietan jokalariek argi ibili beharko dute, eta baita epaileak ere, txapelketak arau berriak izango dituelako. Esaterako, jokalariei dagokienez hegaleko sakeak eta kornerrak hankarekin egin beharko dituzte. Eta, atezainen joko-arauei dagokienez ere hainbat aldaketa izango dituzte; horiek guztiak antolatzaileek azalduko dituzte.

JARDUNALDIKO ORDUTEGIAK

ZAPATUA, URRIAK 1	
17:00	Usabiaga-Diego Valor / K.Piper.
18:00	Komando-Irish Pub / Usabiaga
19:00	Beti Gorri-Lonja / Irish Pub
DOMEKA, URRIAK 2	
16:30	Alytis-La Rosa / UD Akabaoak
17:30	Hinkas-UD Akabaoak / Alytis
18:30	La 12-Bety Friend / Hinkas
19:30	CM Errotagairn-Local Crew / Beti

Kiroldegian ezin da erre
Bestalde, antolatzaileek honako ohar hori zabaldu nahi dute, batez ere partidua ikustera joaten diren zaleei, eta kantxan, ordezkoen aulkian egoten diren jokalariei: alegia, Labegaraietan –eta beste edozein kiroldegitan– ezin dela erre. Antza, iaz denek ez zuten arau hori errespetatu, eta txapelketako antolatzaileek kantxa estalia erabiltzen jarraitu ahal izateko ezinbestekoa da arau horiek errespetatzea.

Jon Beistegi: "Garrantzitsua da ondo hastea, taldeak konfiantza har dezan"

Jokalaria izatetik entrenatzaile izatera pasa da Beistegi; garaipen batekin egin du debuta

X.U. | BERGARA
Kategoria berria entrenatzaile berriaz estreinatu du Gipuzkoako lehen senior mailan lehiatuko den Soralue BKEk, Jon Beistegik ordezkatu du-eta aita izan berri den David Urbina.
Hala, mailaz igo berri taldeak ondo erantzun zuen ikasturteko lehen hitzorduan: "Egia esateko, urduri samar nengo aulkian. Urte mordoan ondoan izan ditudan taldekideen entrenatzaile naiz orain, eta horretara ere ohitu egin behar izan dugu", adierazi digu aste barruan Beistegik. Hala, etxean jokatu dako lehen partiduekin gustura geratu zen Bergarako, nahiz eta partidu amaieran markagailuak alde estua

erakutsi (55-52): "Azken laurdenean zona bat adierazi eta nahastu egin ginen. Baina, orokorrean, partidua kontrolpean izan genuela uste dut; esate baterako, atsedendira 10 puntuko aldeaz joan ginen, baina bai, azken segunduan hiruko bat jasotzea nahikoa da partidua berdintzeko".

Erritmo motela
Ligako lehenengo jardunaldia izanda normala da partidua erritmo motelekoa izatea: "Jokalariai oraindik ez daude fisikoki erabat ondo, baina horrek ez nau horrenbeste ardura, talde gaztea dugulako eta ondo egongo garelako. Aldiz, gorpuzkera aldetik nahiko talde txikia gara, eta esaterako,



Jon Beistegi entrenatzaile berria –erdian– gainontzeko taldekideekin, lehenengo jardunaldian. | BERGARA KE

erreboteetan ondo jardutea izango da gure erronka". Hain zuzen goiko jokoa ondo ibiltzea ezinbestekoa izango da oraingo asteburuan (zapateria, 20:00, Irun)

Erroibideren kantxan etekinen bat eskuratzeko: "Ezagutzen dudan taldea da, aurrekoan euren partidua ikusten egon ginelako. Eta bai, gu baino jokalaria garaia goak

dituzte". Kategoriari eusteko matematikek diote 8-9 garaipen beharko dituztela; kontuak egin da daude, eta lehenengo lortu dute dagoeneko.





Gaurtik, baserritar jantziak eta mozorroak protagonista

San Migelak bukatu eta Errosaixo jaiak ospatuko dituzte astelehenera arte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Txantxikuaren ongi-etorriarekin murgildu ziren oñatiarrak jaietan eguaztenean, eta halaxe jarraituko dute astelehenera arte. Tarte horretan, kolore askotariko

ekitaldiak, baserritar jantziak eta mozorroak izango dira protagonista.

Gaur, Egun Morea da. Txosnagunean hainbat ekitaldi egongo dira: tailerrak, olinpiadak,

bazkari feminista transmaribollo kalejira...

Era berean, gaur, Txantxi Familixaren Eguna da. 11:00etatik aurrera, plazan askotariko ekitaldiak egingo dituzte umeen-

dako eta gurasoendako: tailerrak, jolasak, txiki-txokoa, sukaldaritza txokoa eta sari banaketa. Umeei lagun egiten egongo dira Txantxibiri, Txantxipuf eta Txantxiplast panpinak.

Musikariek ere ez da faltako: txosnagunean *festi kallejeroa* egingo dute eta plazan Estampas de Mexico mariatxiak egingo du emanaldia.

Herri Egunean, herri kirolak

Bihar, zapatua, baserritar arropak jantzi eta goizean goiz kalean ibiliko dira asko. Unibertsitate

inguruan egongo diren erakusketak eta animaliak ikusi, herri tabernan taloa jan eta sagardo dastatzean parte hartuko dute.

Kiroldegian lagun artean bazkaldu ondoren, herritar asko plazan elkartuko dira herri kirolen ikuskizuna ikusteko. Lehenengo, herriko gazteek lehiaketa egingo dute eta ondoren, erakustaldia egingo dute profesionalak: Floren Nazabal, Oihan Larretxea, Ugaitz Mugertza eta Angel Arros-pide aizkolariak; eta Aimar Iri-goien eta Izeta II.a harri-jasotzai-leak.



Udal Musika Bandak kontzertua egin zuen atzo.



Presoen aldeko manifestazioa egin zuten plazatik abiatuta.



Txantxikua kanpandorretik txosnagunera jaisten.



Trikitarangako kideak plazan.



Azkona pailazoen ikuskizuna.



Eraso sexista bako gunea.



Angel Egaña danbor-jotzaileak zuzentzen 25. urtez.



Sukaldariak traktore gainean irten ziren lehen aldiz.



Ume eta gazteak gustura ibili ziren Etxaluzeko jolasparkean.



Gaupaseroek erretratua egin zuten txosnan. | ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA ETA ANDONI AGIRRE

Bide Batez trikitilariak, Bizar-dunak taldeak eta Miren, Agur eta Gorkak ipiniko dute musika, plazan eta txosnagunean.

Kolorea jaiak bukatzeko
Herri Egunaren eta Errosaixo Bixamonaren artean Errosaixo eguna dago, askorendako atsederako eguna. Dena den, kalera irten gura dutenek badute non aukeratu: pilotako finalak, umeendako parkea, tortilla lehiaketa, Nevermind taldearen kontzertua –Nirvanaren kantuak jazz uki-tuarekin egiten dituzte–, balkoi-

tik balkoira bertso saioa Egaña eta Lizasorekin eta piroteknia ikuskizuna, besteak beste.

Jaiei bukaera emateko, kolo-rea eta festa izango dira nagusi Errosaixo Bixamonean. Sokamuturra egon da goizean eta arratsaldean, eta herri bazkaria egingo dute txosna gunean. Aurtten berrikuntzak izango dituzte: mahaiaik eta aulkiak ipiniko dituzte, eta prezioaren barruan bazkaria, edaria, postrea eta kafea sartzen dira. Txartelak salgai daude Arranon, Onan eta Boga tabernetan zortzi eurotan.

SAN MIGELAK ETA ERROSAIXO JAIAK

EGUBAKOITZA, 30 EGUN MOREA

11:00-14:00 Plazan, Txantxi Familiaren Eguna (ludoteka, tailerrak, lehiaketak...).

12:00 Txosnan tailerrak.

14:00 Txosna gunean Olinpiada moreak.

17:00-19:30 Sokamuturra plazan.

18:30 Kaleetan zehar Mariachi Internacional Estampas de Mexico taldearen kalejira.

► Transmaribollo kalejira.

20:00 Azken ostiraleko ELKARRETARATZEA plazan.

20:15-21:30 Plazan Mariachi Internacional Estampas de Mexico taldearen emanaldia.

20:30 Azken ostiraleko Kontzertua Arrano tabernan.

23:00 Kaleetan zehar *festi kallejera*: Klabo Oxidado, Boa Morte, KKK, Labur-Metralla eta Zaborra taldeak.

ZAPATUA, 1, HERRI EGUNA

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.

10:30 Unibertsitate inguruan azoka, erakusketak eta herri taberna.

11:00 Musika eskolako triki-pandero eta soinu-jotzaile taldeak, txistulariak eta Tolosako gaitariak herriko kaleetan.

12:00 25. sagardo dastatzea plazan.

14:30 Zubikoan herri bazkaria.

17:00 Plazan herriko gazteekin herri kirolak. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoan.

18:00 Plazan herri kirol jaialdia Aizkolariak: Floren Nazabal eta Oihan Larretxea, Ugaitz Mugertza eta Angel Arrosperiden kontra. Harri-jasotzaileak: Aimar Irigoien eta Izeta II.a.

18:30 Atzeko kalean Laja eta Narbaiza trikitilarien erromeria.

19:30 Parrokian Esnalen Salbea.

20:00 Txosnetan ekitaldia eta manifestazioa.

► Gero, plazan, Bide Batez trikitilariekin erromeria

23:00 Txosnan Bizardunak taldearen kontzertua.

► Gero, txosnan, Miren, Agur eta Gorkarekin erromeria.

DOMEKA, 2 ERROSAIXO EGUNA

09:00 Txistularien goizeresia.

12:00 Musika Bandaren kalejira.

► Parrokian meza nagusia.

12:00-14:00 Etxaluzen haurrendako parkea.

13:00 Musika bandaren kontzertua plazan.

16:30 Zubikoan 28. San Migel pilota txapelketako finalak.

► Ondoren, profesional mailako partidua: Goñi II.a–Martinez de Eulati eta Eugi–Goñi III.a.

17:00 Tortilla lehiaketa txosnan.

18:30 Plazan eta inguruetan *Rezikletas* kale ikuskizuna.

19:30 Atzeko kalean Nevermind taldearen kontzertua: Nirvana taldearen kantuak jazz ukituekin.

► Txosnan bideo emanaldia.

20:30 Balkoitik balkoirako Bertso saioa Kale Zaharrean: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso.

23:00 Piroteknia ikuskizuna plazan.

► Gero, Gregario de Luxe taldearen kontzertua plazan.

ASTELEHENA, 3 ERROSAIXO BIXAMONA

09:30 Sokamuturra plazan.

12:00 Musika bandaren kalejira.

14:30 Txosnan herri bazkaria.

17:00-19:30 Sokamuturra.

18:00 Txosna gunean Di–Bertsioak: Oñatiko taldeen bertsio–kontzertua.

18:00 Foté Faré taldearen dantza eta perkusio kalejira.

20:00 eta 23:00 Plazan Xaibor disko–jartzailearekin dantzaldia.



Igerileku txikiaren perimetroan, metro bateko azaleran, baldosa kendu dute asfaltozko estaldura ipintzeko. | M.B.

Igerileku txikiko itoginak kentzeko lanetan dabilta

Asfaltozko estaldura aldatu egingo diote eta zerbitzua itxita egongo da urriaren 10era arte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Igerilekua itxita dago. Osakidetza urtean bitan agintzen duen garbiketa sakona egiteko epea aprobetxatuz, hainbat lan egiten dihardute igerileku txikian. Aspalditik itoginak ditu, eta horiek konpontzen dihardute. Hori horrela, igerilekua itxita egongo da urriaren 10era arte. Atzerapenik ez badago, egun horretan hasiko dituzte igeriketa ikastaroak eta ur-ekin-tzak.

Ura beheko solairura

Azken urteotan areagotu egin den arazo bati aurre egin gura izan dio Udalak. Igerileku txikiak hainbat itogin ditu, eta horiek konpontzen hasi dira asteon. "Arazoa larria da. Azken bi urteotan ikusi dugu itoginak handitu egin direla. Igerilekua asko erabiltzen da ikasturtean zehar, eta itoginen ondorioz ez genuen behar bezalako zerbitzua ematen", esan digu Kirol teknikari Oskar Carrascalek.

Itoginek eragin zuzena zuten kiroldegiairen beheko solairuko hainbat lekutan; besteak beste, makineria gelan, mutilen aldagelan eta aldagela mistoan. "Egoera tamalgarria da. Mutilen aldagelako paretak bustita daude, eta aldagela mistoan bost edo sei itogin", esan digu Carrascalek.

Itoginetako ura jasotzeko kanalizazio berezia egin behar izan zuten kiroldegian. "Biltegi batean jasotzen dugu itoginetatik datorren ura. Kantitate handia erortzen da zenbait lekutan", esan digute.

ESANAK

"Itoginak handitu egin dira azken bi urteotan"

OSKAR CARRASCAL | KIROL TEKNIKARIA

Estaldura asfaltiko berria

Hiru dira igerileku txikian egiten diharduten lanak: alde batetik, metro bateko zabaleran baldosa kendu dute eta asfaltozko estaldura berria ipiniko dute; beste alde batetik, igerileku txikiaren inguruan dagoen kanaloia berrituko dute; eta azkenik, igerileku barruko inpultsio ahoak ondo lotu eta hoditeria barruan asfaltozko estaldura ipiniko dute.

Lan horiek guztiak egin arren, ez dute itoginak desagertuko diren berme osoa. "Ez digute esan %100ean itoginak kenduko ditugunik. Baina, hein handi batean, arazoa konpontzea espero dugu", esan digu Kirol teknikariak.

Igerileku txikiaren inguruetako itoginak konpondu ondoren oraindik ere ura sartzen bada, egiturak pitzaduraren bat izan lezake. "Arazo horrek beste lan batzuk egitera behartuko gaitu. Baina hori aurrerago aztertuko dugu", esan digu.

Eraso sexistak artatzeko telefonoa: 688 67 94 62

Berdintasun batzordeak jaietan gerta daitezkeen eraso sexistak atenditzeko telefonoa ipini du: 688 67 94 62. Eta 24 orduan egongo da martxan; laguntza juridikoa eta psikologikoa emango du. Bestalde, gaur eta bihar, Txaketua inguruan zerbitzuaren gaineko informazio-mahaia ipiniko dute, 11:00etatik aurrera.

Ilunpetan argazki taldekoen erakusketa Herriko Plazan

Ilunpetan argazki taldeak *Begi Bistan* erakusketa ipini du Foru plazan. Urriaren 3ra arte, taldeko kideek egindako erretratuak ikus ahaliko dira. Gainera, horietakoren bat eskuratu gura dutenek zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Txartelak bete eta plazan dauden kutxetan utzi behar dira.

Pilota txapelketako finalak eta profesionalak etzi

Aloña Mendik antolatutako pilota txapelketako finalak etzi, domeka, jokatuiko dituzte, 16:30ean, Zubikoan. Gazte mailan Zelaia-Imaz eta Altuna-Tolosa izango dira eta afizionatu mailan, Kina-Telletxea eta Yoldi-Linzoain. Ondoren, profesionalak jokatuiko dute: Goñi III.a-Martinez de Eulate eta Eugi-Goñi III.a.

Jose Luis Martin zinegotzia dago alkatearen ordezkari

Astelehen, martitzen eta eguen goizetan egoten da udaletxean herritarrek hartzeko

M.A. | ARETXABALETA

Ana Bolinaga alkatearen ordezkariena hilabete batzuetarako oraindik ez dago guztiz lotuta, baina astean hiru egunetan Jose Luis Martin Euskara eta Hezkuntza zinegotzia egoten da udaletxean "alkatearekin egon gura dutenak hartzeko". Astelehen, martitzen eta eguen goizetan, hain zuzen, topatuko dute herritarrek, udaletxean.

Konpondu guran

Alkatearen asmoa zen bi zinegotzi jartzea bere ordezkariena egiteko, eta Martinekin batera Maider Aizkorbe egotea udale-

txean. Baina azken unean jakinarazi diote lan kontuengatik ezin duela bigarren horrek. Astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran Aralarko Inaxio Garrok ordezkariaren kontua noizko konponduko duten galdetu zion: "Arazoa latza dela badakit eta konpondu guran nabil azken asteotan, baina oraindik ez daukat guztiz lotuta", erantzun zion Bolinagak. Eperik ematen ere ez zen ausartu: "Egun gutxian konponduta izan gurako nuke".

Bien bitartean, Martin izango da herritarrek hartuko dituen Udaleko ordezkaria.



Alkatea eta Jose Luis Martin asteleheneko osoko bilkuran. | MIRARI ALTUBE

Aretxartek 1.000 euro zozketatuko ditu urrian, herrian gastatzeko

M.A. | ARETXABALETA

Egun bakar batean 1.000 euro gastatu beharko ditu Aretxarteko komertzioetan urriko zozketako irabazleak. Merkatarien elkarteak udazkeneko zozketarako txartelak banatzen hasita dago, eta urriaren 26an aukeratu dute zenbaki irabazlea. Txartel horren jabea agertu ostean azaroko egun bat izendatuko dute diru hori gasta

dezan: "Egun bakar batean gura duena hartu ahal izango du 1.000 euro arte, betiere Aretxarte barruan dauden komertzioetan", esan dute merkatarien elkartearen kideek.

Aretxarte barruan 30 komertzio eta ostalaritza zerbitzu baino gehiago daude; tartean, hainbat eratako dendak, ile-apaindegia, argazkilariak eta edertze eta masaje aretoak.



Zapatu gauean Mitarte kalean jatekoa saltzen egon zen furgoneta, iraulita ordu batzuk geroago. | IBAN ARANTZABAL

Udalak gaitzetsi egin ditu jaietan izandako apurketak

Bidegorriko hesia, bi atarte eta ile-apaindegi bateko kristalak eta auto askotako ispiluak apurtu zituzten

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

"Jende asko elkartu da ekitaldietan eta Kultura Saileko kideak pozik gaude San Migel jaietan nondik norakoekin", izan da Kultura teknikarien balorazioa. Izan ere, eguraldi ona lagun plaza eta kale bazterrek jendea gainezka egon ziren. Jaiak, baina, zapatutik domekara bitarteko apurketek ilundu zituzten. Apurketa horien berri jaso dute astean udaltzainek, eta Udalak gaitzespen oharra kaleratu du.

Hesiko egurrak ibaian

Martin Garai udaltzaiburuak apurtutako kontuen berri eman zuen astelehenean bertan: "Aretxabaletatik Arrasaterako bidegorrian bederatzi hesi inguru; Mitarte plazako ile-apaindegiko eta Murubide kaleko bi atartee-tako kristalak; eta Santa Kurtz kalean aparkatutako auto askotako ispiluak". Horiez gain, Eskoriatzarantz doan bidegorriko tuneleko argi fokuak apurtu zituzten eta zaborren edukiontzia asko irauli, baita patata, hanburgesa eta antzeko jatekoak saltzen dituen postutxo ere, Mitarte kale erdian. "Itxura baten ondo zegoen furgoneta hori, baina barruko guztia hankaz gora eta zelanbait", jakinarazi zuen Garaik.

Martitzen goizean joan ziren arotzak bidegorriko hesia zelan zegoen ikustera Udal ordezkariak bidaltuta, eta Deba ibaira jaitsi eta egur zatiak ateratzen jardun zuten. Hesia apurtuta, tarte bat arriskutsu zegoen oinezkoendako: "Lehenbailehen konpondu behar ko dugu tarte hau, ezer gerta ez dadin", zioten arotzek. Eta "jai guztietako jolas bihurtu dela hesiak apurtzea" aipatu zuten.

Udalaren gaitzespena

Udalbatzak berbetagai izan zuen kontua astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran, eta apurketok gaitzesteko oharra kalera-tzea adostu zuten kide guztiek. Hortaz, Udalak honakoa jakinarazi du prentsa ohar bidez: "Ekin-tza horiek guztiak herritarren askatasunaren aurkako eraso zuzenak dira, elkarbizitza onaren aurkakoak. Udalarentzat, herritar guztiontzat, zehazki 2.000 euroko galerak ekarri dituzte, eta horrek, dirua konponketetan erabiltzea suposatzen du, herri-

tarrok ditugun beharretan erabili beharrean. Errespetuan oinarritutako gizartea eraiki nahi badugu, errespetu jokatu behar dugu, horrelako jarrerak inongo lekurik ez dutelarik".

Eta bukatzeko irailaren 25 goizaldean erasoren bat jasan zuten herritarrei elkartasuna adierazi gura izan diete Udal ordezkariak: "Aurrerantzean, horrelako jokaera zentzugabeak errepikatzea onartuko ez dugula, aretxabaletarrok elkarbizitza onean bizitzen jarraitu nahi dugulako".



Arrasatera bidean dagoen bidegorriko hesia konpontze lanetan. | M.A.

2.000 eurotik gorako kostua

Bidegorriko hesia: 1.154,00 €

Basabe bideko ispilua: 125,02 € materiala + 30 € muntatzea

Bidegorriko tunelean, Eskoriatzara bidean, fokuak: 319,18 €

Guztira: 1.921,28 € (1.628,20 € + %18 BEZ)

Udalak konpondu beharreko horiez gain, beste apurketa batzuk ere izan dira: Mitarte plazako ile-apaindegiko eta Murubideko atarteetako kristalak, autoetako ispiluak eta kebab postua iraulita.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

OHARRAK

'KANPAIEKIN' ERAKUSKETA

Astelehenean, hilak 3, zabalduko dute *Kanpaiekin* erakusketa Arkupen (19:00), eta hilabete osoan egongo da. Areantzako kanpai-jole eskola antolatuta kanpaiei eskainitako hilabetea egingo dute. Martitzenean, hilak 4, Antxon Agirre Sorondoren heraldia izango da eta eguenean, hilak 6, Juan Mari Beltranena. Biak Arkupen dira (19:00).

NIRE USTEZ

GORKA
ETXABEGastronomia
unibertsitatean

Basque Culinary Center dotore eta ospetsuaren inaugurazioan izan nintzen. Mondragon Unibertsitatearen laugarren fakultateak aho bete hortz utzi ditu gastronomia arloko asko, eta mundu horretatik urruti gauden gehienok. Sukaldari ospetsuak, Gipuzkoako gizar-teko ordezkari zabalak, denok bat zetozen: euskal sustraian errotutako berrikuntza proiektu bikaina da Gastronomiaren Unibertsitatea. Astelehenean hasiko dira lehen 56 ikasleak lanean, eta otsailean beste 14. Eta datorren urtean bigarren promozioa osatuko da beste 100 ikaslerekin; mundu osotik

etorriko dira gastronomian graduatzera.

Inaugurazio ekitaldiaz, ezer gutxi; antolatu izan ditugu Artemanekoek ere, eta gustura antolatuko genuke hura. Dotorea, bizia, dinamikoa... Oreka TX, Michael Ducau, lau abeslari gazte, bideo txukuna... Gustura egon ginen eta oso ondo hartu gintuzten. Debagoiendar ugari ikusi nituen: Fagor Etxetresna Elektrikoe-tako ordezkariak, Fagor Industrialeko lagunak, LKS, MUko ordezkariak... Mundura begira dagoen proiektua da eta, ondorio sinplista baldin bada ere, Debagoiena mundura begira dagoen eskualdea dela esan dezakegu. Oro har, asko gustatu zitzaidan. Hori bai, ni arratsaldeko saioan izan nintzen.

50 sukaldari ospetsu ikusi genituen, eta soilik hiru ziren emakumeak. Eskerrak gainerako 47 sukaldariek onartu zutela afizioa eta ofizioa etxean ikasi zutela, amaren alboan.

Bertso eskola dagoeneko hasi da lanean helduekin
eta laster gaztetxoek taldeak osatuko dituzte

Loramendi elkartearen eskutik dagoeneko hasi da lanean bertso eskola. Helduek joan zen astean hasi zuten ikasturtea, baina oraindik zabalik dituzte ateak bertsolaritza gustuko duen edonorendako; eguaztenetan elkartzen dira (20:00-21:00).

Horrez gain, beste bi talde sortu gura dituzte: bata 9 eta 11 urte artekoendako (Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailak); eta bestea, 12 urtetik gorakoendako (DBHkoak). Izen-emate epea zabalik dago eta debalde dira eskola guztiak.

Jaikik antolatuta dantza eta jolasa familian eta
gorputza eta erritmoa pizteko tailerra daude urrian

Urrian bi ikastaro hasiko ditu Jaiki elkarteak: batetik, dantza eta jolasa landuko dituzte familia giroan zapatuetan, hilaren 8an hasita (11:30-12:45); eta bestetik, dantza tailerra egingo dute Magdalena Milano irakaslearekin: funk musika, jazz, afroa, bollywooda... Urriaren 11n hasi eta Gabonak arte da, martitzenean (18:30-20:00). Batean zein bestean izena emateko edo argibide gehiagorako: jaikielkartea@yahoo.es edo 943 53 43 96.



San Migeletako larrain-dantza; argazki onenaren saria jaso du. | IMANOL SORIANO

Bittor Carballaresek
irabazi du I. argazki rallya

Bilduma onenaren saria jaso du hark; argazki onenarena, oster, Imanol Soriano rendako izan da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

San Migeletako I. argazki rallyko sariak banatu dituzte oraingo astean, eta bilduma onenarena Bittor Carballares eskoriatzarrendako izan da, 150 euro; bigarren saria Imanol Soriano arrasatearrak jaso du, 100 euro; eta

hirugarrena Jon Campo aretxabalearrak, 70 euro. Ateratako argazkirik onena, oster, Imanol Soriano izan dela erabaki du epaimahaiak: Mitarte kalean egindako larrain-dantzaren une bat, hain zuzen, eta beste 50 euro jaso ditu hark.

Epaileak, herriko argazkilariak

Argazki taldeak antolatutako I. argazki rallyan bederatzi lagunek hartu dute parte eta antolatzaileak pozik daude: "Herrikoez gain, ingurukoak ere etorri dira, eta gustura gaude izandako erantzunarekin". Horregatik, eskerrak eman gura dizkiete joan den zapatuan lanean jardun zuten bederatziei. Bost gai banatu zizkieten egunean bertan, eta gehienez ere 50 argazki utzi behar zituzten egunaren bukaeran. Gero, gai bakoitzetik argazki bat hautatu eta aurkeztu dute. Hona gaiak: azoka ekologikoa; artisau feria; dantzak; eguneko giroa; eta gai librea.

Epaimahaia herriko argazkilariak osatu dute: Maria Jesus Sanchez, Ane Idigoras, Antonio Arquero eta Manuel Urtubi. Eguaztenean elkartu ziren argazkiak ikusi eta onenak hautatzeko, eta jakinarazi dute argazki onena izendatzea izan dela zailena.

Azaroan erakusketa

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Aretxabaletako argazki artxiiboaren eskuetan geratuko dira eta argazkiokin erakusketa egingo dute Arkupen, azaroan.



LORE MARTINEZ

40 urte
betetakoan
Errioxara

1971n jaiotakoek Arabar Errioxan ospatu zuten 40. urteurrena, irailaren 17an. 30 lagunetik gora elkartu ziren, eta Heredad Ugarte upategira jo zuten ospatzera: upategia ezagutu, ardo ezberdinak dastatu eta bertan bazkaldu zuten gero. "Giro ezin hobean ederto pasatu genuen gero, eguna", jakinarazi dute. Hurrengo irteera 45 urte betetakoan izango dela iragarri dute.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN LEHIAKETAKO SARIEN IRABAZLEAK



Gotzon Agirre Arregi
Jaione Agirre arreba sariarekin
Herria: Arrasate



Nerea Arregi Uribeetxeberria
Jose Migel Mendiara osaba sariarekin
Herria: Oñati



Maribi Zabaleta
Herria: Bergara

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

JAKiON
www.jakion.es

SARIA:

Jakionek emandako
otar eder bat!
Zorionak eta on egin!



Inkernu taberna aukeratu dute Xarmakoek aurkezpen ofiziala egiteko. | JULIO CALLEJA

Ate irekiak egiten dabilta egunotan Tortolis ludotekan

M.B. | ESKORIATZA

Ikasturte berriari hasiera emateko, ate irekiak egiten dabilta egunotan Tortolis ludotekan. Gaur, egubakoitza, *Altxorraren bila* ibiliko dira 10 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak. Olaeta auzoan egingo dute hori, 17:00etatik 19:00etara.

Datorren astean ere askotariko ekintzak izango dira: astelehenerako, urriak 3, haur guztiei zuzendutako joko kooperatiboak antolatu dituzte Luis Ezeizan, ordu berean; martitzenean, 17:00etatik 18:00etara, 3 urteko umeendako abestiak, marrazkiak eta jolasak izango dira eta ondoren, 7 eta 8 urte bitartekoendako eskulanak eta

mahai jokoak; eguaztenean, 16:30ean, 4 urtekoen txanda izango da eta 18:00etan, 8 eta 9 urtekoak buztinarekin jolasean ibiliko dira; eguenean, lehenengo orduan, 5 urteko umeak izango dira eta bigarrenetan, 9-10 urtekoak; eta egubakoitza 6 eta 7 eta 10 eta 12 urte bitarteko neska-mutilendako izango da.

32 euro urtean

Udaleko Gazteria Zerbitzutik azaldu dute 3 eta 12 urte bitarteko umeak joan daitezkeela ludotekara eta urteko bazkide-tzak 32 euro balio duela. Bestalde, ikasturtean zehar ekintza bereziak osteraren antolatuko dituztela iragarri dute.

OHARRAK

PATIN GAUA BIDEGORRIAN

Mugikortasun Astearen harira, patin gaua egingo dute gaur, 22:00etan. Plazatik abiatuko dira, eta, bidegorrian ibili ostean, plazara itzuliko dira. Jarraian, txokolatea hartzeko aukera izango dute.

PERKUSIO IKASTAROA

Urriaren 6an, 14an, 21ean eta 28an perkusio ikastaroa eskai-

niko du Udalak. Interesatuak urriaren 4a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean. Prezioa 15 euro da.

ERRETIRATUENDAKO EKINTZAK

Olazarrek urrirako antolatutako hitzaldi eta tailerretan izena eman daiteke urriaren 4tik 6ra bitartean, 11:00etatik 12:30era, elkartearen egoitzan.



ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

Mahai futboleko txapelketa

Zabalik dago osteraren herriko gaztelekua. Ikasturte berriari hasiera borobila emateko, askotariko ekintzak egin zituzten joan den asteburuan; tartean, mahai futbol txapelketa egin zuten. Denera, hamar bikotek hartu zuten parte, eta, lehia gogorren ostean, Aitzolek eta Iñakik osatutako bikotearendako izan zen garaipena. Zapatuan egindako meriendak ere oso harrera ona izan zuen.

Perretxiko, Ezkurtxo eta bizikleta birari Xarma taldea gehitu zaie aurten

- Danbakako irabazleek 'Karenka' aurkeztuko dute
- Antzerkia, ardo dastatzea eta tailerrak ere badaude

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurten ere ekintzaz josita dator urriko kultura egitaraua, eta aipatzekoa da hil bukaeran Xarma musika taldeak egingo duen diskoaren aurkezpen ofiziala: hain zuzen ere, Danbakako laugarren edizioako irabazleak *Karenka* izeneko lana aurkeztuko du urriaren 28an Inkernu tabernan, 19:00etan.

Egun berean, Max sarietan euskal autore onenaren kategorian izendatutako *Bestela ondo... ezta?* izeneko antzezlanaren ikusteko aukera egongo da unibertsitategian, 22:30ean. Bada, Jon Urrazak sortutako helduendako umorezko antzezlan horretan, bi pertsonaiaren arteko nahasketak islatzen da: bata, *Aitor* aktorea, eta bestea, berak sortutako *Lander* fikziozko pertsonaia, hain zuzen ere.

Baina, aurretik, urteroko ekintzak izango dira: Olazar erretratuaren elkarteak antolatutako hitzaldiak eta tailerrak; urriaren 10ean, elikagaien segurtasunari buruzko hitzaldia kultura etxean, 17:00etan; eta hurrengo egunean, ordu eta toki berean, gai berari buruzko tailerra; urriaren 13an, dendetatik kanpoko salmentez eta mirari produktuez jardungo dute, 17:00etan.

Neska-mutikak nagusi

Urriaren 15ean, osteraren, hitzordu bikoitza dago: alde batetik, Arizmendi ikastolakoak Gellaora joango dira Ezkurtxorekin batera, 15:30ean; bestalde, urtero moduan, Luis Ezeizakoak inguruko mendietara joango dira perretxiko bila. Goizean goiz ibiliko dira neska-mutikoak perretxikotan, gurasoek lagunduta. Arratsaldean,

batutakoa sailkatu egingo dute eta hurrengo egunean, urriaren 16an, erakusketa izango da.

Bestalde, urriaren 19an hitzordua dute ardozaleek: ardo dastatzea egingo dute, 18:30ean, kultura etxean. Bi ordu inguru iraungo du saioak eta doakoa izango da; asmoa da ardoa modu praktikoan eta atseginean ulertzeko dastatzearen oinarritzko printzipioak ezagutaraztea. Horren harira, Arabako Errioxako upeltgien elkarteak aditu bat jarriko du horretarako.

Bizikletan ibiltzea gustuko dutenendako, berriz, urteroko irteera egingo dute aurten: urriaren 23an, domeka, egingo dute Eskoriatzako 22. mendiko bizikleta ibilaldia, Eskoriatzako Udalak eta Areka BTT elkarteak antolatuta. Izen-ematea egunean bertan egin beharko da.

LENIZ
ESKORIATZA



Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
inyektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa

Herriko armarri-sinboloa aldatzeko ideia onena sarituko da

Urriaren 17ra arte aurkeztu ahal izango dira ideiak udaletxean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA
Nabarralde elkarteak 2009ko urtarrian eskaera aurkeztu zion Antzuolako Udalari herriko armarrian agertzen diren Belateko kanoien gainean hausnarketa egin eta armarritik ken zitzan. Kanoi horiek 1512ko gaztelarren konkistaren adierazle direla zioten Nabarraldekoek.

Eskaera hori egin ondoren herrian hitzaldiak egin ziren eta ondoren, Udalak Aldundiarekin elkarlanean Kudeatuz izeneko parte-hartze prozesua bultzatu zuen. Parte-hartze prozesu horren ondorioa izan zen armarrian jasotzen diren irudiak egungo baloreekin ez datozela bat, eta armarrria aldatu egin beharko litzatekeela.

Armarria aldatzeko lehen pausoa otsailean eman zuen udalbatzak. Bertan, 1979an Gipuzkoako Batzar Nagusiek aho-batez onartutako mozioa aurkeztu zuen udal gobernuak. Mozio harekin Gipuzkoako armarritik Belateko kanoiak kentzea onartu zuten Batzar Nagusiek. Hala, mozioaren irakurketaren ondoren, Antzuola



Herriko armarrria, udaletxe aurrealdean. | USOA AGIRRE

lako udalbatzak aho-batez onartu zuen armarriko kanoiak kentzea onestea. Adierazpen hori egin ondoren, armarrriaren aldaketa prozedura onartu zuten.

Idea sarituko da
Lege-prozedura guztia egin ostean, joan den astean hasi zen armarri-sinboloa aldatzeko lehiaketa. Lehiaketan edozeinek har dezake parte eta marrazki bat aurkeztu beharko da, marrazki horren azalpenarekin batera. Teknika librea izango da eta diseinuari baino garrantzi handiagoa eman- go zaio ideiari berari.

Epaimahaiak kontuan hartuko ditu aurkeztutako ideien kalitatea eta zuzentasuna, orijinaltasuna, berrikuntza eta horrez gain, Kudeatuz prozesuko baloreak eta balore horien esanahiak kontuan hartu beharko ditu ideiak. Ondoko taulan dituzue Kudeatuz prozesuan lehenetsitako baloreak.

Lanak Antzuolako udaletxean aurkeztu beharko dira urriaren 17ra arte. 800 euroko saria egongo da ideia onenarendako.

Kudeatuz-eko balioak

- Euskara / Herri euskara: Antzuolako euskararen berezitasuna.
- Antzuolartasuna: antzuolarrak garenaren baieztapena.
- Alardea.
- Herri sentimendua.
- Elkartasuna herri mailan: egoera konkretuen aurrean herritarrek elkarrekiko erakutsi izan duten laguntza.
- Boluntarioria.
- Gertutasuna: ia denek elkar ezagutzea.
- Ekintzailetasuna: ekimen berriak martxan jartzeko egon den ausardia.
- Herriko jaien zaleak.
- Solidaritatea: herritik kanpo gertatzen diren egoeren aurrean erantzuten dakitenak.
- Herri langilea.
- Natura: herria bera kokatua dagoen inguruneak duen balioa.
- Generazio arteko gertutasuna.
- Sorgin dantza: berreskuratu den jaia.
- Ohitura zaharrak errekuperatu: horretan egon den gaitasuna.
- Makila txiki dantza.

Herritarrendako XVII. argazki lehiaketa martxan

U.A. | ANTZUOLA
Argazki lehiaketa antolatu du Udalak hamazazpigarren aldiz. Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan. Gaia librea da eta argazkiak koloretan edo zuri-beltean aurkeztu ahal izango dira.

Hiru maila egongo dira: lehen maila, 6-12 urte (biak barne); bigarren maila, 13-18 urte (biak barne); eta hirugarren maila, 19 urtetik gorakoendako. Guztira, 505 euro banatuko dira saritan; 250 euro jasoko ditu hirugarren mailako lehenengo sarituak.

Azaroaren 11ra arte
Lanak udaletxean aurkeztu behar dira azaroaren 11ra bitartean eta bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztuko ditu.

Argazkien euskarria 30x40 cm-koa izango da ezinbestez, eta kartoi mehez eginikoa; krema edo beix kolorekoa izango da. Euskarri horren barruko argazkiaren neurria, gehienez, 25x35 cm-koa izango da.

Oinarri guztiak dituzue www.antzuola.com webgunean.



Gaueko lehen argiak, iazko irabazlea. | IKER AIZKORBE

Haurren Dantzari Egunean umeak etxean hartzeko izen-ematea
Urriaren 9an, domeka, izango da Antzuolan bi urtean behin egiten den Haurren Dantzari Eguna. Egun horretan inguruko herrietatik ume asko etorriko direnez, Oinarriek umeak etxeetara bazkaltzera eramateko deia zabaldu du. Izena emateko tokiak: Eroski, Martin okindegia, Itzar liburu-denda eta Nerea lurrindegia. Urriaren 6a, eguna, da azken eguna izena emateko. Oñatiko Oñatz, Arrasateko Lore Gazteak, Legazpiko Korosti, Soraluzeko Urrats eta Antzuolako Oinarri dantza taldeetako umeak izango ditugu herrian egun horretan. Goiz eta arratsalde dantza ugari izango dira herriko kaleetan eta plazan.

Musika Eskolan izena emateko epea luzatu egin dute
Hizkuntza musikaleko lehen mailan (7 urtetik gorakoentzat) eta abesbatzan (9-12 urte bitartekoentzat) izena emateko epea luzatu egin dute urriaren 7ra bitartean. Hizkuntza musikaleko eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 18:45etik 19:15era bitartean. Abesbatzako entseguak astelehenetan izango dira, 17:45etik 18:45era bitartean. Abesbatzan parte hartzeko ez da beharrezkoa musika jakitea edo ikasketak egiten ibiltzea. Informazio gehiago Bergarako Musika Eskolan, 943 76 57 80 telefonoan eta idezkaritza@bme.e.telefonica.net e-posta helbidean.

Gazte txokoan lan egiteko hezitzaileak behar dituzte
Gazte txokoa azaroan zabalduko da eta kurtso berrirako hezitzaileak behar dituzte. Hauek dira baldintzak: euskaraz jakitea; 18 urtetik gora izatea; antzuolarra izan edo bertan bizi izatea; eta begirale titulua izatea eta lan- esperientzia baloratuko dira. Izena emateko hona bidali behar dira curriculumak urriaren 5erako: gazteantzuola@hotmail.es. Datuetan agertu beharko dira eginiko edo egiten ari den ikasketak, tituluak (begirale titulua, EGA...) esperientzia... Gazte txokoa, Idolazek kudeatzen duen arren, herriko gazte talde batek eramaten du.

Udan Frankfurtetik Varsoviara egindako bidaia kontatuko dute
Hileko lehen eguenetarako *Antzuolarrak munduan zehar. Herritarrek egindako bidaiak argazkitan* izeneko hitzaldi-sortak antolatu dira. Eguen honetan ikasturte berriari dagokion lehen hitzaldia egingo dute Aitor Gabilondo, Xabier Azkarate, Fernando Garitano eta Estebe Olaortuak. Joan den udan Europan zehar ibili dira bizikleta gainean. Frankfurten hasi eta Varsovian bukatu zuten bidaia. Alemania, Txekiar Errepublika eta Polonia eza- gutzeko aukera izan dute. Datorren egunean izango da hitzaldia Olarango aretoan, 18:30ean hasita.

OHARRAK

FUTBOLA
Erregional mailako taldeak Amaiak Baten kontra jokatuko du bihar, zapatua, 16:00etan, Eztañan. Kadeteek Elgoibar Bren kontra jokatuko dute zapatuan, 12:00etan, Elgoibarko Mintxetan.

PALA MOTZA
Olaldeko pala motzeko jokalariak gaur, egubakoitza, hasiko dute Gipuzkoako klub- ben arteko txapelketa. Antzuolako pilotalekuan jokatuko dute, 20:00etan, Oiarzungo Txost 1 taldearen aurka.

ATEZ ATEKOA
Atez atekoaren jarraipen batzordea urriaren 6an, egue- na, batuko da, 18:00etan.



lazkoarekin moduan egutegi berrirako erabiliko dira argazkiak. | ROSA MONDRAGON

2012ko egutegia egiteko, argazki lehiaketa aurten ere

Egutegi berria osatzeko erabiliko dira argazkiak; azaroaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira lanak

J. B. | ARAMAIO

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Udalak argazki lehiaketa deitu du datorren urteko egutegia egiteko. Sari potoloak egongo dira: batetik, sari nagusia eta

bestetik, lau kategorietako onenak. Irabazle nagusiak 200 euro jasoko ditu eta egutegiaren azalean joango da haren irudia. Bestalde, urtaro bakoitza ondoen islatzen duen argazkilariak 100 euro jaso-

ko ditu urtaro bakoitzeko. Hau da, udaberriko, udako, udazkeneko eta neguko argazki onenak sarituko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste argazki aurkeztu ahal izango ditu, bakoitzari izenburua eta argazkia atera zeneko data jarritz. Lehenago argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren baten saritu gabekoak izan beharko dira lanak. Azkenik, aurkeztu diren argazkiak pertsonaren baten lehen planoak izanez gero, pertsona horren baimena ere aurkeztu beharko dute parte hartzaileek.

Entregatzeko baldintzak

Argazkiak entregatzeko azken eguna izango da azaroaren 2a. Udaletxean edo Kultura etxean entrega daitezke. Argazkiak aurkeztu beharko dira argazki papelean, 18x24 zentimetroko neurrian. Horrez gain, CD batean grabatuta ere entregatu beharko dira.

Gainera, gutun-azal batean aurkeztu beharko da argazki bakoitza, kanpoan argazkiaren izenburua jarritz eta atera zeneko data. Barruan, izenburu bera duen gutun-azal txiki batean, egilearen datuak jakinarazi beharko dira.

Aduniaren folk emanaldiak itxiko ditu Sastiñako iraileko kontzertuak

J.B. | ARAMAIO

Gaur amaituko dira, iraileko azken egubakoitza izanik, Sastiñako kontzertuak. Eibar eta Emua arteko Adunia taldeak joko du gaur (20:00) eta aurreko hiru saioetako joera jarraituz, folka eskainiko dute.

Bederatzi urte elkarrekin

2002ko udaberrian sortutako taldea da eta folkaz gain, doinu zeltiarrak ere lantzen dituzte. Diotenez, erritmo eta doinu berriak aurkitzera bideratutako folka da euren; sei lagunek osatzen dute taldea. Eguraldi ona egiten badu kanpoan joko dute.



Aduna musika taldea. | GOIENA

Urriaren 16an egingo den Nafarroa Oinez jairako autobusak

Aurten Tafallan egingo da Nafarroa Oinez jaia, urriaren 16an. Bada, Nafarroako ikastolen aldeko jaialdian parte hartzeko autobusak jarri guran dabil Udaleko Euskara Zerbitzua. Gutxieneko taldea sortzeko esperantza dute. Hala, izena eman behar da udaletxean edo liburutegian, urriaren 11 baino lehen.

Autobusa egunean bertan irtengo da pilotalekutik, 08:30ean. Tafallatik, berriz, 18:30ean irtengo da Aramaio-ra etortzeko. 12 urtetik beherrakoek hiru euro ordaindu beharko dute; gainontzekoek, berriz, bost euro.

Euskaraz egiteko, euskara ikasteko dei egin du Udalak

Bi ikastaro eta mintzapraktika antolatu dute; gaur da izena emateko azken eguna, udaletxean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euskara ahalik eta herritar gehien ahotan izateko helburuak bultzatuta, Udaleko Euskara Zerbitzuak ikastaroak antolatu ditu. Aurten hiru deialdi ezberdin egingo dituzte. Bi ikastaro modura landuko dira: hastapenekoa eta alfabetatzea. Bestea, berriz, iaz sortu baina aurrera egin ez zuen ekimen bati dagokio: euskarazko hitz jariora landu gura duten euskaldunei zuzendutako mintzapraktika, hain zuzen.

Mintzapraktika ekimenean sortu da taldetxoa dagoeneko, zortzi bat lagunek eman dute izena: "Ez da ikastaro moduan planteatuko, helburua da hitz egitea. Ahozko hizkuntza bakarrik landu gura da eta aurten, gainera, hikaz egingo duten euskaldun zaharrak ere animatu dira", azaldu du Rosa Mondragon Udaleko euskara teknikariak. Euskaldun zaharrak eta berriak nahastu gura dira. Beraz, euskaraz hitz egiten jakitea eta astean ordubete libre izatea dira bete beharreko baldintza bakarrak.

"Oso gustura ibili izan naiz"

Hastapeneko ikastaroa aurrez parte hartu duten herritarrendako da bereziki. Aurten ere zortzi bat lagunek eman dute

izena dagoeneko. Ahoz zein idatziz lehen pausuak eman gura dutenendako da. Hala ere, aurrekoetan parte hartu duten ikasleez gain, perfil berdintsua dutenek ere aukera izango dute taldean sartzeko.

Aramaion bizi den Jose Lorenzoren kasua da, ezagutzen du hastapen ikastaroa. Oso pozik dago: "Azken bi urteetan eman dut izena eta oso gustura ibili izan naiz, irakaslea oso ona izan da. Horregatik aurten ere animatuko naiz".

Alfabetatze-maila lantzeko ikastaroa euskaldun zaharren dako da, batez ere. Hitz egiten dutenei baina euskara batuan irakurtzen eta, batez ere, idazten ondo moldatzen ez direnei dago zuzenduta ikastaro hori. Hau da, ahozko eta idatzizko euskara hobetzea gura duten euskaldun zaharrei begira antolatu dute. Herritarrek hala eskatuta antolatu dute ikastaro hori.

Izenematea luzatu egin dute

Ikastaroetako baten izena eman gura duenak gaur arte izango du horretarako aukera. Udalak printzipioz irailaren 27an itxi behar zuen izenematea baina antolakuntza aldetik posible denez -ikastaroekin urrian hasiko dira-, egubakoitzera arte luzatu dute epea.

NIRE USTEZ

ANDERE
ARRIOLABENGOA



Nondik dator susmoa?

Joan den zapatuan Aitor Aranaren omenezko XV. mendi ibilaldia ospatu zen Aramaio parajeetan zehar. Aitor Arana Peruko 6.646 metrotako Huascara mendian zebilela hil zen eta ordutik urtero ospatu ohi da omenaldi mendigoizale hau, Orixol mendietan elkartaren eskutik.

Aurten, urtero legez, 08:00etan zen zita frontoian. Jende andana bildu zen egunaz gozatzeko asmoz. Irribarretsu eta gogotsu hasi zuten ibilaldia. Baina antolakuntzako talde bat Kurtzeta inguruan zebilela gure lagun Guardia Zibilak ikusi zituzten Jarindoko pistatik aurrera. Hasieran ez zieten inongo garrantzirik eman baina gerora konturatu ziren euren-

gatik hurbildu zirela pista haietara. Zuhaitz artean gelditu ziren, mendizaleak noiz gerturatuko zain.

Ibilbidea markatzen zuten seinaleak kendu zituzten eta pistetako lurra arrotzen ibili ziren, mendigoizaleen harridurarako. Egia aitortzeko, galdu ta zebilen mendizale bati taldea aurkitzen lagundu zioten; hori bai, ibilbidea markatzen zuten seinaleak kendu ondoren.

Baten batek pentsatuko zuen AHTrik ez jartzen zuen kartel baten atzean zerbait susmagarria egon behar zukeela. Eta gainera, izen euskaldun bat omenaldi hitzaren alboan jarri ezkerro pastelari ginga jartzen diogu! Gure herri zahar hau inguratzen duten mendi eta magaletan ezin bagara aske sentitu, esadazue non!

"Izen euskalduna eta omenaldi hitza, pastelari ginga!"

125 bat lagun Aitor Arana omentzeko ibilaldian

Arrakasta borobila izan du Peruko Huascaran mendian duela 15 urte hildako Aitor Arana aramaioarraren omenezko mendi martxak. Eguraldia lagun, 125 lagun elkartu ziren eta mendizaleak gustura geratu ziren ibilbidearekin. Bestalde, Orixol elkartekoek salatu dute Guardia Zibilarekin topo egin zutela ibilbideko hiru puntutan.



ORIXOL MENDI ELKARTEA

ELGETA



Martitzenean egindako osoko bilkura. | LARRAITZ ZEBERIO

Bost ume ludotekarako eta bi gaztelekurako

Kuota bikoiztu du Udalak, "zerbitzua kalitatezkoa delako eta Aldundiak finantzazioa jaitsi duelako"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Erabiltzaile gutxi izango dituzte ludotekan zein gaztelekuan ikasurte hasiera honetan. Ekainean 26 erabiltzaile zituen ludoteka zerbitzuak baina urri hasierarako bost besterik ez dituzte espero. Kuota bikoiztu izana egon daiteke egoera horren atzean. Udaletik, baina, datozen asteotan jendea poliki-poliki apuntatzen joango dela aurreikusten dute. "Kalitatezko zerbitzua da eta uste dugu horrek eragina izan behar duela kuotetan. Dena den, batzarra egingo dugu gurasoekin azalpenak emateko", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. Aurreratu

duenez, Diputaziotik jasotzen den dirulaguntzak ere behera egin du. "Duela hiru urte 18.000 euro jaso genituen, iaz 9.000 eta aurten 3.000".

Zerbitzua ziurtatuta dago abendura arte Udalak adostasun hori duelako Txirikil elkartearekin. "Eta Diputazioarekin harremanetan gaude", adierazi du alkateak. "Espero dugu abendura orduko argitzea zerbitzua finantzatuko duen".

70.000 euro Aldundiari

Egoera ekonomikoa zaila da. Asteon konfirmatu dute Diputaziotik udalek dirua bueltatu egin

beharko dutela eta testuinguru horretan Elgetako Udalak 70.000 euro inguru bueltatu beharko dizkio Aldundiari. Eguaztenean egin zuten lan bileran Diputazioan eta Aldundiko hazienda ardura-dunek elkarlanerako deia egin zieten Gipuzkoako hainbat alkateri, tartean Elgetakoa. Erostarbe malgutasunez jokatzeko eskatzen du: "Espero dut EAJk egin zuen moduan Bilduk ere malgu jokatu duela eta lagako digula diru sarreraren beherakada suposatuko duen kopurua bi edo hiru urtean bueltatzen. Egoera ekonomikoa denondako da txarra, eta beharrezkoa da erakunde bakoitza %100ean dituen konpetenzien kargu egitea".

Frontearen 75. urteurrena

Udalak, bestalde, urriaren 9rako antolatu diren ekitaldietan parte hartzera deitzen ditu herritarrek. Herri bazkarirako urriaren 6ra arte eman daiteke izena.

Pagatzen kobrea lapurtzen saiatu dira

Astelehenetik martitzenerako gauean El Casco enpresa pareko arketa bat zabaldu eta argindar sareko kablea moztu zuten. Uda aurretik argindar sareko kobreguztia eraman zuten. Honakoan, baina, kobrea beharrean aluminioa aurkitu dute eta ez dute ezer eraman. Hori bai, industrialdea ilunpetan utzi zuten.



LARRAITZ ZEBERIO

LEINTZ GATZAGA

'Sorginek' irteera egingo dute bihar eta erretiratuek, hilaren 13an

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Balenciaga gure zain leloarekin egun-pasa joango dira bihar, urriak 1, Sorginak emakume elkarteko kideak. 10:00etan irten eta Geta-riara joko dute lehenengo, eta Cristobal Balentziaga diseinatzailer handiari eskainitako museoa ezagutu. Arropa dotoreen artean ibili eta gero, mokadutxo bat jan

eta Donostiaranzko bidea hartuko dute. Bertan bazkaldu eta ondoren, paseoan egin, dendak ikusi eta hondartzara joateko aukera izango dute *sorginek*.

18 emakumek eman dute izena biharko irteerarako eta giro bikaina izango dutelakoan daude antolatzaileak: "Ea eguraldiak ere laguntzen digun".

Erretiratuak Nafarroara

Toki Eder elkarteko erretiratuek, oster, urriaren 13rako, eguena, antolatu dute irteera. Udazkenean egin ohi duten legez, Nafarroa aldera joango dira, eta Lizarrako azoka eta inguruko parajeak bisitatuko dituzte. Bazkaria Aiegi herriko Iratxe hotelean izango dute, dantzaldi eta guzti.

Izen-emate epea zabalik daukate, eta Toki Ederko zuzendaritzako kideengana jo behar da: Tere Aranburuzala edo Joxe Gorosabel.

Leo Bassik 'Utopia' ikuskizuna eskainiko du gaur, barikua, 22:30ean, Espaloia kafe antzokian

Ezagutzen du Elgetako kafe antzokia Leo Bassi antzezle entzutetsuak. Gaur, barikua, krisi ekonomikoa izango du, besteak beste, aztergai *Utopia* emanaldian. Kritika onak jaso dituen lana da. Egungo egoerarekin oso kritiko azaltzen da Bassi; egungo egoerarekin baino gehiago, egungo agintariekin, hobeto esanda. Emanaldia 22.30ean hasiko du. Sarreraren prezioa 13 euro da; bazkideendako, 10 euro.

Euskadiko Mendi Federazioak ezohiko batzarra egingo du zapatu goizean Elgetan

Batzar gatazkatsua aurreikusten dute deitzaileek. Berezia izango da; izan ere gaur egungo zuzendaritza batzordearen aurkako zentsura-mozioa eztabaidatuko dute Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako mendizaleek. Txomin Uriarte buru duen taldeak duela hiru urte eskas hartu zuen federazioaren gidaritza. Guztiak ez daude gustura egiten ari diren lanarekin eta zentsura-mozioa aurkeztu dute. Batzarra 10:30ean hasiko da kafe antzokian.

Urteko batzar orokorra egingo dute Elgetako Athleticzaleek domekan, urriak 2

Intxortako Lehoiak taldeko kideak domekan Bolatoki tabernan egingo den batzarrera deituak daude. 18:00etan hasita Felix Irizar buru den zuzendaritza batzordeak urteko balantze ekonomikoa aurkeztuko du. Gainera, denboraldi berria antolatzen ere hasiko dira; Gabonetako Loteria eta denboraldiko irteerak izango dituzte hizpide. Bazkideei batzarrean parte hartzeko eskatzen zaie, eta batzarrera puntual agertzeko.

Elgetako osasun etxean ere martxan dute gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Gainerako osasun etxeetan moduan Elgetan ere urriaren 31ra arte ipiniko dituzte gripearen aurkako txertoak. Aurten ere ezinbestekoa da aldeztu aurretik txanda hartzea. Interesatuak osasun etxera joan behar dute edo 943 - 78 90 27 telefono zenbakira deitu behar dute. Elgetarrak hasita daude txertoa hartzen; lerrok idazterakoan txertoa hartzera osasun etxetik pasata zeuden 36 herritar.

Dinamizatzaile berria KZgunean: Eli Modregok astelehen goizean egingo du urriko lehen bisita

Aurrerantzean Debako KZguneako dinamizatzailea etorriko zaigu hilean bitan Elgetara. Eli Modregok astelehenean, urriak 3, egingo du hurrengo bisita. 09:00etatik 13:00etara egongo da kultura etxeko KZgunean eta ohiko seminarioak egiteko aukera eskainiko du. Elgetako KZgunea txikia da — bi ordenagailu besterik ez ditu — baina ikastaro aukera zabala eskaintzen du. Zerbitzua herritar guztiendako dago zabalik.

Ana Mari Sousak urriaren 6an, eguena, egingo du ikasturteko lehenengo biodantza saioa

Ana Mari Sousaren biodantza eskaintzak jarraipena izango du ikasturte honetan ere. Eguenetan egingo dituzte saioak, 19:00etatik 21:00etara. Lehenengoa, urriaren 6an egingo dutena, saio irekia izango da eta nahi duen orok izango du bertan parte hartzeko aukera. Biodantza ezagutu nahi baduzue, hurbildu egunean Elgetako Herri eskolan egingo duten saiora.

Aperriboy, s.l.

*Marmoldegi
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

Ehiza denboraldiari hasiera emango diote bihar Gatzaga aldean

Bihar, urriak 1, hasiko da ehiza denboraldia —postuetan bakarrik—, eta herritarrek dituzten 18 postuetan tirohotsak entzungo dira.

Gipuzkoako Ehiza Federazioaren eskuetan dauden 65 postuen zozketak, oster, hilaren 7an hasiko dituzte. Arrasateko Eroskiko tabernan izango dira aurten.

Bidali zure

MODAko Argazkia

centrocomercialgorbeia.com
web-orrira eta

1.500€

**irabazi ahal izango
dituzu saritan***

1 Erosi 20€-tik gorako artikulu bat Gorbeia Merkataritza Parkean moda eta osagarrien edozein establezimendutan.

2 Egin zaitez argazki bat artikuluarekin, eta eseki centrocomercialgorbeia.com web-orrian.

3 3 argazkirik onenek 500€-ko sari bana jasoko dute erosketa-txarteletan.

2011ko Irailaren 30etik
urriaren 31ra



GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

(*)Ikusi oinarriak gunen honetan:
www.centrocomercialgorbeia.com

Carrefour

DECATHLON

Norauto

BRICO
DEPOT

McDonald's

merka
cazados

YELMO
3D

MILKES
MAX

CIMER
el outlet del electro

SAMIRA

CÓCTEL
hourrak

CORTEFIEL

ASIA GALLO



Jon Zabaleta, iaz, Bergararen kontrako derbian baloiagatik lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

KIROLAEDOMAILAXXX

Hasiera txarra baieztatzen hasi aurreko derbia jokatu dute Mondrak eta Bergarak

Argi gorriak ez pizteko, bi taldeak puntu beharrean dira

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Bi porrot eta berdinketa bat. Halaxe hasi dute bai Mondrak eta bai Bergarak liga, eta beste kategoria batean egonez gero argi gorriak piztuta izango lituzkete. Baina hau ohorezko erregionala da, biek ala biek talde gazteak dituzte eta pazientzia beharko da Iban Rodriguezen eta Neka Galanen mutilekin. Liga hasi aurretik ere jakinekoa zen bietako inor ez zegoela etxafuegoak botatzeko, beterranoek utzitako hutsunea ez delako goizetik gaue-
ra betetzen.
Denboraldiaurreko torneotan txukun jardun zuen Bergararen bisita izango du Arrasateko taldeak zapatuan (16:30, Mojategi). Mahoneroek arrisku handi barik sortu barik ondo egin zioten aurre

Aretxabaletari (1-1), baina etxean, Tolosaren (0-3) eta Urolaren (1-4) kontra zigor gogorra jaso dute, zortzi gol hiru partidutan.
Mondrak ez ditu horrenbeste gorabehera izan. Zelaian ez dute lekua erraz galdu, eta galdutako partidua gol bakarreko aldeagatik izan dira. Baina, erasoan kontrarioaren atera iristeko alter-

natiba gehiago beharko dituzte. Egoera horretan aurkeztuko dira bi taldeak bihar Mojategira, eta garaipenik badago, lortzen duenak lasai lan egiten hasteko astia irabaziko du.

Aretxabaleta eta Aloña etxean
Ibarreko beste bi ordezkariak ere etxean jokatu dute. Aurreko biek moduan, Aloña Mendik ere txarto hasi du liga, Azkargortaren mutilek ez dutelako punturik batu; hala, San Migelengatik ordutegia aldatuta (zapatua, 17:00, Azkoagain) etxeko zaleen eta patroiararen beraren laguntza ere eskertuko dute. Azkenik, UDak gutxi behar izan du aurrean egoteko hautagaietako bat dela erakusteko; domekan (16:30) Oiar-tzunen bisita izango dute.

DATUA

1

PUNTU

Mondrak eta Bergarak puntu bakarra batu dute hiru jardunalditan.

MENDIKO BIZIKLETA

Eguraldia lagun izango dute etzi Bergaran

Pronostikoak betetzen badira domekan koadrila polita batuko da Bergarako Aspanogi mendi bizikleta martxan (09:00), sarri eguraldiak baldintzatu egiten ditu-eta halako hitzorduak. Antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte ziklistendako: motza 28 kilometrokoa eta luzea 37 kilometrokoa.



JOSETXO ARANTZABAL

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA		
LEHENENGO MAILA Reala-Athletic Domeka, 12:00. Anoeta.	Aretxabaleta B-Soraluze Domeka, 11:30. Ibarra. Arrasate-Arizmendi Zapatua, 12:00. Mojategi.	LEHEN SENIOR GIZONEZK. Santo Tomas-MU Egubakoitza, 20:00. Donostia. Irun-Soraluze BKE Zapatua, 20:30. Azken Portue.
EMAKUMEZKOEN 2. MAILA Mondra-Athletic Revellin Domeka, 12:00. Mojategi.	EMAKUMEZKOAK Aizmendi-Urola Zapatua, 18:00. Ibarra.	BIGARREN SENIOR GIZONE. Aloña Mendi-Cafes Aitona Egubakoitza, 20:15. Donostia.
GAZTEEN EUSKAL LIGA Indartsu-Aretxabaleta Domeka, 12:45. Basauri.	ARETO FUTBOLA	SENIOR EMAKUMEZKOAK Krafft Athletic-Eskoriatza Zapatua, 20:00. Donostia.
OHOREZKO ERREGIONALA Mondra-Bergara Zapatua, 16:30. Mojategi. Aretxabaleta-Oiartzun Domeka, 16:30. Ibarra. Aloña Mendi-Beti Gazte Zapatua, 17:00. Azkoagain.	EUSKADIKO TXAPELKETA Eskoriatza Atsedena.	KADETE GIZON. ERRENDIME. MU A-Hernani KE Zapatua, 11:15. Musakola.
ERREGIONAL PREFERENTE A Antzuola-Amaiak Bat Zapatua, 16:30. Estala. Mutriku-Aretxabaleta Zapatua, 18:00. San Miguel.	GIPUZKOAKO BIGARREN M. Plaza Berri-Aretxabaleta Zapatua, 15:00. Azkoitia.	MENDIKO LASTERKETAK
LEHEN ERREGIONALA Ikasberri-Mondra Zapatua, 17:30. Garmendipe. SBB mutrikuarrak-Aretxab. C Domeka, 16:30. San Miguel.	ESKUBALOIA	ANBOTOKO KILOMETRO BERTIKALA Zapatua, 15:00. Arrazolan.
LEHEN ERREGIONALA, KOPA Aretxabaleta C-Ikasberri Zapatua, 15:00. Ibarra.	EUSKADIKO TXAPELKETA Urduliz-Soraluze BKE Zapatua, 18:00. Urduliz. Corazonistas-Ford Mugarr Zapatua, 20:00. Gasteiz.	ERRUGBIA
GAZTEEN OHOREZKO MAILA Aloña Mendi-Mondra Egubakoitza, 18:00. Azkoagain. Bergara-Ordizia Zapatua, 16:30. Ipintza.	GAZTE MAILA, GIZONEZK. Bergara-Eibar Zapatua, 11:00. Labegaraleta. Aloña Mendi-T.Chapime Arras. Zapatua, 11:30. Iturripe.	EUSKADIKO TXAPELKETA La Unica-Arrasate Zapatua, 18:00. Iruñea.
KADETEEN OHOREZKO MAILA Lagun Onak-Bergara Zapatua, 13:30. Garmendipe. Anaitasuna-Artx.Aizmendi Zapatua, 16:30. Azkoitia. Oriolo-Aloña Mendi Zapatua, 10:00. Mendibeltz.	GAZTE MAILA, EMAKUMEZ. Aloña Mendi-Urola Atzeratuta.	MENDI BIZIKLETA
LEHEN MAILAKO KADETEAK Eibartarrak-Arrasate B Zapatua, 11:00. Unbe. Elgoibar-Antzuola Zapatua, 12:00. Mintxeta. Bergara B-Elgoibar Zapatua, 18:30. Ipintza.	KADETE MAILA, GIZONEZK. Amenabar-Soraluze BKE Zapatua, 10:30. Zarautz. Karibe Zahar-Bereao Aloña Zapatua, 09:45. Legazpi. Talleres Chapime-Hondarribi Zapatua, 10:00. Iturripe.	BERGARAKO ASPANOGI MARTXA Domeka, 09:00. Bergara.
	KADETEAK, EMAKUMEZ. Astigarraga-Aloña Mendi Zapatua, 10:00. Elgoibar.	PILOTA
	SASKIBALOIA	SAN MIGEL TXAPELKETAKO FINALAK, OÑATIN Domeka, 16:30ean hasita, Zubikoan.
	LEHEN NAZIONAL MAILA MU-Leihoak Zarautz Zapatua, 18:00. Iturripe.	PILOTARI PROFESIOALEN JAIALDIA, OÑATIN Domeka, 18:00etan hasita: Goñi II.a-Martinez de Eulate vs Eugi-Goñi III.a. Sarrerak 5 euro.
		HERRI KIROLAK
		SAN MIGEL JAIEEN BARRUAN, OÑATIN Zapatuan (Herri Egunean) Aizkolariak eta harri jasoizaleak plazan, 18:00etan.

MENDI LASTERKETAK

Bihar egingo duten Anbotoko kilometro bertikalean Oihana Kortazarrek bolada onarekin jarraitu nahi du

Bihar, zapatua (15:00), egingo duten Anbotoko kilometro bertikalean lehia estuak ikusi ahal izango dira. Emakumezkoetan, Kortazarren eta Valentina Belotti italiarraren artean borroka polita izango da, besteak gutxietsi barik. Gizonezkoetan, berriz, Marco De Gasperi eta Didier Zago dira faboritoetako batzuk. Arrasateko Aritz Kortabarriak ere aurrean egoteko gaitasuna du.

ATLETISMOA

Urriaren 14an egingo dute TAFYDeko lagunak sei kilometro izango dituen gaueko III. krosa Arrasaten

Urriaren 14an egingo dute Arrasaten Tafydeko III. gaueko krosa (Youtuben duzue lasterketaren berri, Olatz Manuel irakasleak ematen dituen azalpenekin bideoa egin dute-eta), eta aurten sei kilometroko lasterketa antolatu dute. Krosa 20:00etan hasiko dute, iaz moduan, Ferixalekuan. Izena aurrez ematen dutenek 8 euro ordainduko dituzte (www.herrikrossa.com) eta egunean bertan ematen dutenek, 10 euro.

PILOTA

Pilotari profesionalen lau t'erdiko txapelketako kanporaketa Antzuolan datorren egubakoitzean

Datorren egubakoitzean, urriak 7, pilotari profesionalen jaialdia izango da Antzuolan; hain zuzen, lau t'erdiko txapelketako kanporaketa bat egongo da jokoan. 22:15ean hasita, Zabaletak eta Mendizabal III.ak jokatu dute lehenengo partidua; txapelketari dagokion kanporaketa partiduan segurua da Aritz Lasa kantxan izango dela, baina zozketa bidez erabakiko dute nor izango duen kontrario.

SAN MIGELAK 2011

GARAGARTZA auzoan



IRAILAREN 29XEN, EGUENA

19:00 Meza San Migelen oroimenez
Meza ostien luntxa egongo da auzo-etxien

IRAILAREN 30IEN, BARIKUE

19:00 Jaixen hasierie, ikurriñe igo eta etxaflero jaurtiketie.
19:30-21:30 Arrasateko trikitilarixek ibilliko die **kalejiran**.
22:00 **BUZKENTZA ROCK** jaialdixe:

- Garraxi
- The Magnificents
- Lotsabakuek
- Kañeria13

3:00 **JINKANIE** Garagartzako plazan
5:00 **Berakatz-zopie** auzo-etxien

URRIAREN 1IEN, ZAPATUE

12:00 Meza auzoko hildakuen alde
12:00-14:00 Puzgarri eta taillerrak TXATXILIPURDIren eskutik.
17:30 Gorriti eta bere animalixak.
22:00 Dantzaldixe TXINPARTA taldeaz.

URRIAREN 2XEN, DOMEKA

10:00 Garagartzako VII. Kobate Open futbol partiduek (umiendako).
11:00 Meza nagusixe.
13:00 TXIKITXU taldeaz euskal dantzak
14:30 Auzo bazkaixe.
Bazkalostien, **erromerixia**
Lide eta Eneritzekin.

Elizondo Kafetegia

San Migeletako ohitura onak berreskuratzeko
irailaren 30ean, urriaren 1ean eta 2an
buzkantzak eta ardi-okela
eskainiko dizkizuegu.



Garagartza auzoa

943 79 15 99

BARIKUEN ETA ZAPATUEN **BUZKENTZAK**
EGONGO DIE 18:00ETATIK AURRERA, AUZO-ETXIEN



Tel.: 943 71 24 09. Faxe: 943 77 02 51. Garagartza auzoa. ARRASATE



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14

UGARAN
Jatetxea

ARRETA HANDIKO
SUKALDEA
GIRO
ABEGIKORRA

Garagartza auzoa
943 79 76 58
ARRASATE

Paraje eder
baten kokatua



Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxe: 943 71 18 82

KULTURA

'Martin Larralde': istorioak historia lausoan galtzea ekiditeko adibidea

- Kolaborazioz jositako liburu eta diskoa atera dute Eneko Barberenak eta Mikel Ocejak
- 40 testu eta 11 kantuz osatutako lana da; atzo aurkeztu zuten Arrasateko gaztetxean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE


Behar zuen erritmoan eta inoren presio barik. Modurik naturale-nean. Halaxe erditu dute Eneko Barberena eta Mikel Ocejak arrasatearrek *Martin Larralde* izeneko liburu eta diskoa. Martin Larralde bertsolari eta koblakari lapurtarraren omenez bataiatu dute proiektua, Joseba Sarrionandiaren *Inork ez du koblakarririk behar* esaldia hartu eta euren erara moldatuz. Larralderen heriotza ahaztu egingo litzateke Sarrionandiaren lanagatik ez balitz, besteak beste. Bada, hori bera egitera datoz Barberena eta Ocejak, beste hamaika istoriorekin. Hitzak Barberenak egin ditu eta Ocejak arduratu da hitzok ilustratzeaz. Ideia jarioen mundu hori musikatzea, berriz, "luxuzko" kolaboratzaileen eskutik heldu da: Pirritx eta Porrotx, Gose, Ain_1, Petti, F21 –Arkaitz Biain eta Beñat Irazabal–, Bihotz bakartien kluba, Xabi Strubell, Enaitz Alustiza, Manex Agirre...

40 testu –"hausnarketa", Barberenak dioenez– eta 11 abestik osatzen dute obra. Diskoaren grabazioa Bonberenean burutu da zatirik handienez, baina abesti batzuk Arrasateko Shot!, Aretxabaletako Lazkano eta Gasteizko Hala Bedi estudioetan grabatu dira.

Atzo egin zuten proiektu bereziaren aurkezpena, Arrasateko gaztetxean. Aurkezpenean bertan jarri ziren salgai, hamar eurotan. Auto-ekoizpena izanik, Arrasaten eta inguruko herrietan egileek eurek salduko dute eta Euskal Herrian zehar Bonberenea Ekin-tzak ekimenaren bitartez zabalduko da. Internet bidez eskuratzeko aukera ere egongo da datozen egunotan, proiekturako propio sortu den www.martin-larralde.org webgunean.

Literaturaren memoria lana

Hiru urte iraun du *haurdunaldiak*: "2008an gertuko istorioak kontatzen zituzten testu batzuk argitaratzeko sentitu nuen nahi edo beharretik sortzen da", dio Barberenak eta honela azaldu digu proiektuaren helburua: "Literaturaren *leitmotiv* handi bat eka-ri gura izan dut mahai gainera: istorio batzuk daude literaturak jorratzen ez baditu galdu egingo



Martin Larralde: istorioak subjektibotasunetik kontatzeko aldarrikapena, historia lausoan gal ez daitezen. | XABIER URTZELAI

direla. Prentsa hor dago, hementekak hor daude, baina ez da berdina. Kazetaritza genero baliagarria izan daiteke baina oso iragankorra da aldi berean".

Esaten duena sinesten duela atzematen zaio bere iritzia adibide batekin borobiltzen duenean: "Zer geratuko da 15 urte barru, adibidez, Kikutza gaztetxearen

eraistea? Nire ustez, Zea May-sen abestia eta egunotan gertatu dena barrutik kontatuko duen horren testigantza. Gertakariak jasota daude komunikabideetan baina uste dugu literatura eta sorkuntza direla tresna eraginkorrenak memoria hori lantzeko. Finean, istorioak historian mantentzeko saiakera apala da gure

proiektua". Mikel Ocejak ere sortzaileen erantzukizun hori aldarrikatzen du: "Norbera saiatu behar da bere istorio propioak kontatzen, beste batek objektibotasunetik kontatuko baititu. Istorioak memorian geratzen dira, subjektibotasunetik kontatzen direnean, sentimenduekin kontatzen direnean".

"Bidea da helburua"

"Mila esker bidaia hau posible egin duzuen guztioi, bidea da helburua", diote egileek. Uste dute azken emaitza baino politagoa izan dela bidea bera. Hots, auto-ekoizpenak zer suposatzen duen lehen pertsona bizi eta hiru urteotan ezagututako jende guztia ezagutu izana.

Denetariko kolaborazioak, denetariko doinuak



IRAITZ AGIRRE

Ain_1 taldeko kidea. *Naufragoa eta oholak* abestia Aretxabaletako Lazkano estudioan musikatuz. "Etxekoak" direla nabarmendu du. "Pozik gaude emaitzarekin, gertukoak ditugu eta oso gustura aritu gara. Erronka izan da, testurik luzeena dauka guri egokitu zaigun abestiak. Gure azken diskoan kantu beraren bertsio bat sartu dugu".



JUAN LUIS PEREZ 'PETTI'

Musikaria, bakarlari moduan ezaguna. *Dena ohitura, dena errua, dena barkamena* kantua- ren hitzak musikatuz. "Eraginkorra" izaten saiatu da. "Goseren azken diskoaren grabaketan ezagutu nuen Eneko. Gustuko ditut haren testuak, idazle indartsua da. Testuaren bigarren esanahia musikatzeak era sinplean sortu nuen kantua, gitarra pare batekin".



BEÑAT IRAZABAL eta ARKAITZ BIAIN

F21 taldeko kidea. "Noizean behin" batzen dira, gustu eta ezinegon berdintsuek erakarrira. *Tranpak* musikatuz. "Eraginkorra" izaten saiatu da. "Goseren azken diskoaren grabaketan ezagutu nuen Eneko. Gustuko ditut haren testuak, idazle indartsua da. Testuaren bigarren esanahia musikatzeak era sinplean sortu nuen kantua, gitarra pare batekin".



JOSE MARI AGIRRETXE 'PORROTX'

Euskal Herriko pailazo ezaguna. *Iruñeko Udala* grabatu zuten, Bonberenea txarangarekin. "Gurea sentitzen dugu", dio Barberenaren gainean. "Udalak sanferminetan umeendako txokolate-jan bat debekatu izana salatzen du, ironikoki. Afizio debekatzaile horien aurka gaude; gure errezeta umore ona eta irriak dira. Parte hartzea guri abestea moduan izan da".



MANEX AGIRRE

Bertsolaria, Arabako txapel-duna. *Behar du Bilbok Xiberoa* testuari ahotsa jarri dio. Grabazioa Hala Bedi estudioetan egin zuten. "Eneko Enaitz Alustiza eta bioi etorri zitzaigun bertso bi sartu gura zituelako. Pozik eta ilusioz eman nuen baiezkua. Ardoaren balio onak eta istorio herrikoia- k gogoratzeak gaitasuna aldarrikatzen du testuak".

ESANAK

"Kazetaritza baliagarria izan daiteke, baina iragankorra da"

ENEKO BARBERENA | EGILEA

ESANAK

"Sentimenduekin kontatuta gogoratzen dira istorioak"

MIKEL OCEJA | EGILEA

'Amantalen ahotsa' ikuskizuna aurkeztu dute

Debagoieneko lau emakumek eta Ain_1 musika taldeak parte hartuko dute urriaren 7ko emanaldian

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Aurten uztailean 75 urte bete dira Espainiako gerra hasi zela; mugarri hori kontuan hartuta garai haietako historia kontatuko duen ikuskizuna antolatu dute. Historia emakumeen begietatik kontatua izango da.

Ikuskizuna urriaren 7an izango da, 20:00etan, Donostiako Victoria Eugenia. Sarrerak salgai daude 12 eurotan Victoria Eugenia bertan, Printzipal antzokian eta Interneten.

Debagoiendarren presentzia
Ikuskizunaren bizkarrezurra adineko emakumeen testigantza izango da. Horretarako, *www.ahotsak.com* proiektuko bideo pasarteak erabiliko dituzte.

Debagoieneko lau emakumeen pasarteak aurkeztuko dituz-

te ikuskizunean: Arrasateko Leandra Otxoa, Eskoriatzako Mari Karmen Pagaldai, Aretxabaletako Miren Zuazabeitia eta Oñatiko Martina Ugarte. Haiez gain, ikuskizunean zuzenean parte hartuko dute Arrasateko Ain_1 taldeko neskek. Bertsoek, zuzeneko musikak, kantuek, antzerkiak eta dantzak borobilduko dute saioa.

Amantala kultura elkarte
Idoia Etcheberria oñatiarra Amantala kultura elkarte kide da. Duela urte eta erdi inguru hasi ziren gerrako kontuak jasotzen. 75. urtemuga momentu ona iruditzen zitzaion orduko gertaerak kontatzeko. Hasieratik garbi zuten "ikuskizun artistikoa" egin nahi zutela. Horretarako, Amantala elkarte sortu zuten.

Ikuskizuna emakumeen ikuspegitik kontatua eta euskaraz izango da: "Ikuskizuna ez zen sortu aldarri feministarik egiteko, baina bai emakumearen lana eta bizimodua ezagutarazteko. Gerran gertatu zena gizonen kontua dela dirudi, haiek egon zirelako frontean. Baina biztanleen erdia emakumeak ziren orduan ere, eta gizonak bezainbeste sufritu zuten", dio Etcheberriak. Denera, 40 emakume ingururen pasarteak aukeratu dituzte, gerrako gertaerekin eta gerra osteko giroarekin lotuta: eskola, lana, ezkontza, elizaren indarra...

Zuzendari artistikoa Agurtzane Intxaurrek da eta parte hartuko dute: Oinkari dantza taldeak, Amaia Zubiriak eta Maialen Lujanbiok, besteak beste.



Amantala kultura elkarte kideak eta protagonista batzuk. | AMANTALA

'Atxabaltan kanpaiek die' jardunaldia egingo dute astelehenetik aurrera

A.E. | ARETXABALETA
Arientzako kanpai-jole eskolak antolatuta *Atxabaltan kanpaiek die!* jardunaldiak egingo dituzte datozen egunetan.

Kanpai-jole eskola lanean hasi zenetik gaur arte egin dutena erakustea da jardunaldien asmoa. Arientzako eskola sortu zen kanpai-joaldiak berreskuratzeko asmoarekin.

Lau laguneko taldea

Gaur egun lau lagunek osatzen dute Arientzako kanpai-jole eskola: "12 laguneko taldea hasi ginen, eta lauk besterik ez dugu jarraitzen", azaldu du Julen Abasolo taldeko kideak.

Gaur egun galduta daude kanpai-joaldien hainbat eginkizun; adibidez, suteen berri ematea. "Hil-kanpaiak, festetako kanpaiak, meza... oraindik ere iragartzen dira kanpaien bitartez", dio Abasolok. "Eguneroko martxa" iragartzen zutela dio. Hain zuzen, kanpai-joleen eskolaren helburua

garai bateko ohiturak berreskuratzea eta gordetzea da.

Argazki eta tresna erakusketa
Astelehenean hasiko dituzte ekitaldiak. 19:00etan argazki eta tresnen erakusketa zabalduko dute Arkupe kultura etxean. Gainera, sagardo dastatzea egingo dute. Hilabete osoan egongo da zabalik erakusketa.

Urriaren 4an, martitzena, *Origenes y curiosidades en torno a la campana* hitzaldia egingo du Antxon Agirrek. Eguenean, Juan Mari Beltranek *Txalaparta, laneko erritmoetatik musikara* hitzaldia egingo du. Egun handia urriaren 8an ospatuko dute, zapatua. Goizean bi hitzaldi izango dituzte: Francesc Llops i Bayok *El toque de campanas. Aprendizaje de las diferencias* egingo du eta Francisco Fernandez de Jauregi *Lo que dicen las campanas*, 10:45ean. Ondoren, hamaiketako eta bazkaria egingo dute.

EGITARAU

URRIAK 3

19:00 Erakusketaren irekiera.

URRIAK 4

19:00 Antxon Agirreren hitzaldia.

URRIAK 6

00:00 J. M. Beltranen hitzaldia.

URRIAK 8

10:00 Hitzaldia.

10:45 Hitzaldia.

11:30 Hamaiketako.

12:00 Kanpai joleen topaketa.

14:00 Arientzara bisita.

15:00 Bazkaria Larrinon.

17:00 Joaldi koordinatua.

18:00 Topaketan amaiera.

URRIAK 22

18:00 Andrei Rublev filma.

URRIAK 29

22:00 Txalaparta ikuskizuna.



Leo Bassi, *Utopia* ikuskizuneko momentu batean. | LEO BASSI

Utopiezen jardungo du Bassik betiko estilo zirikatzailean

A.E. | ELGETA

Antzezlan kritiko eta ausarta eskainiko du Leo Bassi aktoreak Elgetako Espaloian gaur, barikua, 22:30ean.

Sarrerak 13 eta 10 eurotan (bazkideendako) egongo dira salgai.

'Utopia' ikuskizuna

Ez du lehenengo aldia Leo Bassi (New York, 1952) komikoak Espaloian. Orduan, aretoa bete egin zuen; gaur, beste antzezlan batekin etorriko da: *Utopia*. Bassik bufoi moduan definitzen du bere burua. Taula gainean erabiltzen duen estiloa zirika-

tzailea eta polemikoa izaten da. Batez ere, eskuindar ideologia eta erlijioak kritikatzeko ditu Bassik. Eliza katolikoa izan ohi da Bassiren kritiken jomuga.

2009an estreinatu zuen Bassik *Utopia* lana: "Dow Jones indizea 6.500 puntu jaitsi zen eta sistema neoliberalak hondoratzen zebilen", dio Bassik antzezlanaren gainean. *Utopia* lanak utopia aurrerakoiez dihardu. Bassiren helburua orain arte "lagun ideologiko" izan dituenak zigortzea da: batez ere, "nondik gatozen" gogorarazteko.

Idazle Eskolan matrikulatzeko epea urriaren 14an amaituko da

A.E. | BERGARA

Dagoeneko martxan dute Idazle Eskolan ikasturtea. Izena eman daiteke *ieskola.asmoz.org* atarian edo *www.idazten.com* atarian, urriaren 14ra arte.

Idazle Eskola bi ikasturteetan egiten den 300 orduko graduondokoa da. Eskolak zapa-tuetan izango dira, 09:00etatik 13:30era Bergarako UNEDen. Modulu jakin batean bakarrik matrikulatzeko aukera era badago. Modulu horietako bakoitzak genero jakin bat lantzen du, eta arlo horretan diharduen idazle baten gidaritzapean egiten da. Moduluak:

iritzi artikulak –Pako Aristi–; poesia idatzi –Tere Irastorza–; ipuinak idatzi –Edorta Jimenez–; antzerkia idatzi –Xabi Lopez–; eta ozenki irakurri –Itziar Gomez.

Irakurle mintegiak

Eskola ordez gain, hilean behin Idazleak Irakurle mintegiak egingo dituzte. Aurtengo gaia *Euskara jatorrian* izango da: Paulo Iztueta, Patziku Perurena, Julen Arriolabengoa, Patxi Zubizarreta, Fredi Paia, Xamar, Urbeltz, Aitor Furundarena eta Jon Sarasua dira gonbidatuak.

Final-laurdenetarako behin-behineko sailkatu da Jokin Labayen, Eibarren lortutako 449 puntuekin

Zapatuan Eibarko final-zortzirenetan Nerea Elustondok lortu zituen puntu gehien (516 puntu). Hala, G Puntuko final-laurdenetarako txartela lortu zuen. Labayen arrasatearrak, berriz, 449 puntu lortu zituen eta behin-behineko sailkapena lortu du final-laurdenetarako. 42 bertsolarietatik puntu gehien dituzten 24ak pasako dira bertsolari txapelketako final-laurdenetara.



Jokin Labayen Eibarren. | G PUNTUA

Capoeira ikastaroak egingo dituzte urrian zehar

Senzala Euskadi kultura elkarteak eskainita Eskoriatzan eta Arrasaten egingo dituzte

A.E. | ARRASATE

Hasiberriendako eta umeendako ikastaroak antolatu ditu Senzala Euskadi capoeira elkarteak. Urrian zehar eskainiko dituzte ikastaroak; eta, hain zuzen, oinarritzko mugimenduak ikastea izango da helburua.

Eskoriatzan, umeendako

Umeendako eskolak astelehenetan izango dira, 19:00etatik 20:00etara, Eskoriatzako pilotalekuan. Izena eman beharko da gaur, egubakoitza, 625 77 22 95 zenbakian. Urriko astelehenetan izango dira eskolak, denera bost egun; eta prezioa izango da 5 euro eskolako.

Oinarritzko ikastaroa izango dela kontuan hartuta, ez da beharrezkoa esperientziarik izatea. Senzala Euskadi elkarteak azaldu dute gomenda-

garria dela kirola egiteko arropa eramatea.

Arrasaten, eguenetan

Arrasaten, berriz, hasiberriendako ikastaroa eskainiko dute. Eguenetan izango da, 19:00etatik 20:00etara, San Viator ikastetxeko gimnasioan. Datorren egunean hasiko dira eskolak, urriak 6 (ondoren, urriak 13, 20 eta 27). Prezioa da: 5 euro eskola bakoitzeko edo 15 euro hilabete guztia. Izena emateko azkeneko eguna gaur da.

Hasiberriendako ikastaro horietan oinarritzko mugimenduak eta abestiak ikasiko dituzte. Senzala elkarteak adierazi dute helburua dela jendeak capoeira ezagutzea; hala, gus-tuko dutenek aukera izango dute urte osoko ikastaroetan parte hartzeko.



Bizardunak nafarrak aski ezagunak dira gurean; bihar Oñatin arituko dira. | GOIENA

Bizardunen musika eta umorea Oñatiko txosnetan

Bihar, zapatua, izango da kontzertua, 23:00etan; ondoren, Miren, Agur eta Gorkaren erromeria

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oñati jai giroan murgilduta dago eguaztena ezker. Orain artekoa nahikoa ez, eta bihar, zapatua, egun handienetarikoa bat ospatuko dute txantxikuarrek: Herri Eguna. Egun osoko ospakizunen ondoren, eguna borobiltzeko kontzertu erraldoia antolatu du Txosna batzordeak.

Txosnaguneko taula gainera Bizardunak nafarrak igoko dira. Musikaz gain, umorea ere jarriko dute Oñatiko jaietan. Bizardunen kontzertuaren ondoren erromeria giroa izango da Oña-

tin: Miren, Agur eta Gorka hirukoteak dantzarako doinu proposak eskainiko ditu.

Euskal folk doinuak

Euskarazko folk musika egiten dute nafarrek, The Dubliners eta The Poguesen estiloari jarraituta. Folk doinuak politika eta ironiaz beteta dauden letrekin osatzen dituzte. Edozelan ere, politika ez da jorratzen duten gai bakarra: besteak beste, karlistaldiak eta langileen egoera ere lantzen dituzte euren abestietan.

Gizonezkoak eta bizardunak dira Bizardunak taldeko kideak, bederatzi: Asier, biolina; Itzala, txirula; Anderete, mandolina; Iñigo Cabezafuego, abeslaria eta akordeoia; Txotxi Artola, abeslaria; Jose Mari, abeslaria; Txe-txu, baxua; Fermin, gitarra; Leroy, bateria eta abeslaria.

2009an sortu zen eta hiru lan argitaratu dituzte: *Euskal Herriko oreoak*, 2009an argitaratutako singlea; *Bizardunak* (2009); eta *En zugzwang* (2010).

Domekako kultura hitzorduak

Domekan, Errosaio egunean, Nevermind taldeak kontzertua eskainiko du Atzeko kalean, 19:30ean; eta 20:30ean balkoitik balkoirako bertso saioa izango da Kale Zaharrean; gauean, Gregario de Luxe taldeak joko du plazan (piroteknia ikuskizunaren ondoren).

Euskal zeramikagileen gaineko erakusketa Kulturaten ikusgai

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute Arrasateko Kulturaten zeramikaren gaineko erakusketa; hain zuzen, Euskal zeramikagile garaikideak izango dira protagonistak. Gaur hasi eta urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Ordutegia: martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

Ines Osinagak 'Zuzen-zuzenean' abestian parte hartu du

Zuzeneko musika zirkuitua da *Zuzen-zuzenean*. Euskal Herriko taldeek bertako aretoetan kontzertuak eskaintzea du helburu, eta modu horretan sektorea indartzea. 2011ko edizioko abestia Petti musikariak egin du, eta abestiari ahotsa Ines Osinaga Goseko abeslariak jarri dio.

Ingelesa, alemana, frantsesa...

hizkuntzak

Adin guztiak
Maila guztiak

%80ek gainditzen dituzte Cambridgeko azterketak

Aktiba zaitez

MONDRAGON LINGUAekin

Eskola malguenak aktiba itzazu, ordutegien, helburuen, trebetasunen... arabera.

Eskola eraginkorrenak aktiba itzazu, tutore pertsonalizatuarekin eta banan-banako planifikazioarekin.

Berrikuntza aktiba ezazu, teknologia aurreratuenarekin, baita norberaren ordenagailutik eroso egonda ere.

Zure ikasketa aktiba ezazu, gazteenentzako bideojoko didaktikoekin.

Urriaren 7a baino lehen matrikulatzen diren ikasle helduek e-book edo iPad2 zoragarria jasoko dute opari.

www.mondragonlingua.com

ARRASATE

Araba etorbidea 4 Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon kalea Tel. 943 71 60 00

BADATOR...



3. edizioa

Kantari

Urriaren 8 eta 9an Arrasaten izango gara!

Etorri zuen lagunak animatzera.

Arrasate eta **Aramaioko** partaideok,
eman azken errepasoa abestiari eta
koreografiari!

IKUSKIZUNAK

URRIA

ARRASATE 8 / 9

Amaia antzokian.

OÑATI 15 / 16

Gaztelekuan.

AZAROA

BERGARA 5 / 6

Zabalotegi aretoan.

ARETXABALETA 12 / 13

Arkupe aretoan.

Abestien letrak eta koreografiaren bideoak
<http://zugaz.com/blog/>

943 25 05 05

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Aukera polita. Arrasateko alde zaharrean etxebizitza salgai 162.000 eurotan. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpoaldera begira. Saltzeko arrazoia: kanpora bizitzen joan garelako.662 18 2573

Oñati.70 metro koadroko etxebizitza salgai Kurtzebide kalean. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin. Dena kanpoaldera begira. Ganbara ere badauka. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 615 71 79 23 edo 649 11 83 43

Oñati. Errekalde kalea 23, 5.A. Jantzia. 90 metro koadro. Hiru logela handi. Jantzia. Egongela sofa eta telebistarekin. Sukalde handi hornitua. Etxerik gabeko ikusmirakin. Terraza. Igogailua, teilatua eta ataria orain gutxi berrituak. Herriitik eta eskolatik oso gertu. Prezio oso interesgarria.943 77 06 62 edo 608 97 31 38

Oñati. Etxea salgai Kurtze Bide kalean. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela eta ganbara. Laugarren solairua. Oso eguzkitsua. Igogailu eta berokuntzarekin. 666 44 23 98

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzon. Lau logela, bainugela bat eta komun txiki bat, jangela-egongela eta sukaldea. Garajeitxia. Ganbara. Balkoia eta terraza. Prezio negoziagarria. 634 43 78 19

Zumarraga. Etxebizitza eguzkitsua salgai. Bi logela, egongela, komuna eta sukaldea. 156.300 euro. 638 33 03 01

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Jantzia. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 649 55 48 10

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Ia berria. Hiru logela eta bi komun. Informazioa gehiago fotocasa.es/ alquiler/aretxabaleta helbidean edo telefono zerbaki honetan: 630 60 47 75

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Ikasle edo langileentzat. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Interesatuok deitu zerbaki honetara:650 02 79 29 edo 943 79 99 63

Arrasate. 120 metro koadroko etxebizitza. Garbiketa gela, sukaldea, komun txikia, bainugela, egongela-jangela eta lau logela. Erdigunean. Unibertsitatetik bost minutura. 609 03 85 20

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Ganbara. Jantzia. Interestuok deitu zerbaki honetara: 605 43 29 31

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguinen, unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. Igogailuarekin. Berokuntzarekin. Hilean 600 euro. Deitu 636 60 79 60 edo 943 79 83 48 zerbakietara.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz jantzia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 657 13 33 44

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bikote arduratsuak etxebizitza behar du errentan. Hiru logelakoa gutxienez.636 80 87 68

105. ETXEA OSATU

Arrasaten. Pertsona bat behar da pisua osatzeko Arrasaten. Banakako logela. Herriko plazan bertan. 160 euro gehi gastuak. Atsaldez deitu. Eneko.658 74 48 24

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 250 euro hilean, gastuak barne.670 85 86 68

Eskoriatza. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Intxaurtxuetan. Edurne. Deitu 639 88 80 63 telefonora.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. 20,14 metro koadroko azaleradun garaje plaza salgai Arrasateko erdialdean (Kontzeziñoako etxe berrietan). Telefono:649 66 47 97

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Eskoriatza. Neska bat behar da etxeko lanak orduka egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 605 76 08 29

402. ESKAERAK

Arrasate. 53 urteko emakumea, lanerako gertu. Deitu 943 79 60 89 telefonora.

Arrasate. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Eskarmetuduna. Orduategi malgua, baita gauzez ere.618 00 08 28

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egin eta arratsaldetan nagusiak zaintzeko.665 75 41 32

Bergara. Neska esperientziaduna gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki hauetara:943 76 12 57 edo 652 75 68 95

Debagoiena.Edozein lan mota egiteko prest: garbiketak, adinekoak zaindu, sukaldeko laguntzaile eta abar. 603 82 30 08

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldakatarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

- Profesionalen moduluak.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. Deitu 663 53 70 38 zerbakira.

Debagoiena. Emakume euskalduna umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko gertu. Baita nagusiak zaintzeko ere, tituluarekin.652 76 65 06 edo 943 79 11 14

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduategi malgua. Miranigatik galdetu.698 39 08 27

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko orduka, egun osoz zein gauzez. Legezko papearekin. Deitu 671 18 50 83 edo 943 10 96 89 zerbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu sukalderi laguntzaile jarduteko zein gaixoak zaintzeko. Egunez eta gauzez. Esperientzia eta informea ditut.661 48 86 74 edo 943 79 67 96

Debagoiena. Garraio lanak egiteko prest nengoke: pertsonak, paketeak edo bestelakoak. Furgoneta daukat. 628 51 22 78

Debagoiena. Gizon arduratsua, legezko papearekin, prest garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbizari jarduteko ere. Gidabaimena eta autoa daukat. 677 77 22 31

Debagoiena. Ikasketa soziosanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko. asteburuetan.649 15 72 47

Debagoiena. Mutil euskalduna mendi garbiketak, lorezaintza lanak eta abar egiteko prest.658 73 79 02

Debagoiena. Emakumea gertu edozein motako lanetan jarduteko.610 99 70 46

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, egunean 24 orduz, baita asteburu zein jaiegunetan ere. Badakit euskaraz. 696 38 10 07

Debagoiena. Neska gertu etxean bizi izaten edo orduka nagusi zein umeak zaintzeko, edo garbitasun lanetan jarduteko. Erreferentzia onak dauzat eta berehala hasiko nintzateke lanean. Interesatuok deitu zerbaki honetara:649 07 31 33

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa zein dendari lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizizanda ere bai. Erreferentzia onak ditut.606 72 28 76

Neska arduratsuak lan egingo luke garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen. Orduka, eta baita gauzez ere.638 87 63 89.

Oñati. Mongoliako neska, ganorazkoa, arduratsua eta eskarmetuduna. Etxeak garbitzen, plantxa egiten, umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Orduka zein etxean bizitzen.637 84 69 28 edo 674 64 62 15

Oñati. Neska euskalduna eta langilea. Etxeko lanak egin edo tabernan jarduteko prest. Deitu 685 73 06 80 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Debagoiena. Mantentze industrialeko ikasle batek elektrizitateko eta elektro-hidraulikako eskola partikularrak hartuko lituzke. 600 89 92 85 edo 943 79 43 75. Inaki

Matematikako. Ingenieritza informatikoko ikaslea matematikako eskola partikularrak emangozkion pertsona baten bila. Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate.605 73 71 10

502. EMAN

Arrasate. Neska euskalduna (irakasle ikasketaduna) LH-ko edozein mailatako ikasleri klase partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. 653 01 44 16

Arrasate. Irakaslea den neska euskalduna 1. hezkuntzako klase partikularrak emateko gertu. Deitu 679 16 39 14 telefonoz zerbakira.

